

ZU HEMEN ZAUDE goiena



"Goxoa eta gertukoa"

Antzuolako Torresoroa aretoa guztiz egokitu dute, ekipamendu berriarekin / 27

Kultura teknikari Jone Larrañaga, Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria eta Hirigintza teknikari Valen Moñux, Torresoroako agertokian, atzo, eguena.

UBANE MADERA

Mozorro jaia nonahi

Aratuste giroak hartuko ditu inguruotako bazter guztiak datozen egunotan / **Ikus 'Herriak' saila**

DUNTUA +

Aitor Aspe, Fagor Ederlan Taldeko presidentea

Mikel Uribealgo bergararraren espedizio solidarioa

SINADURAK	
	MAIDER ALDAI / 21
	MIGEL LAZPIUR / 23
	NEREA MAKAZAGA / 8
	AINHOA NEGERUELA / 30
	PALOMA MARTINEZ / 16
	IDOIA ETXEBERRIA / 44



NISSAN X-TRAIL
23.600 €* TIK AURRERA
7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI PANORAMIKOAREKIN



3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.
Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa
Cliente programa hemen nuncaconducirasolo.es
edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

GAURSA ARABAUTO Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 6.2 l/100 km. CO₂ isurpenak: 145 g/km.
*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkatutako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze ZIurtagiriaren arabera estandarrik dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza baldiduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAre bidez finantzatzen badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/02/28 arte da baldiduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintako ibilgailuarekin.

Ondare arkeologikoaren atzeko lana bistaratu

Lezetxikiko eta Labeko kobako aztarnak altxortzat jotzen diren lekua Irungo Gordailua da. Kontserbazio lan horiek nola egiten dituzten erakusteko bisita gidatuak antolatatu dituzte hileko azken egubakoitzetarako, eta lehena gaur izango da

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Debagoiengan aurkitutako arkeologiko garrantzitsuak egin izan dira azken mendean zehar. Horren erakusle dira Lezetxikiko aurkitutako Erdi Paleolitoko giza hezurak eta Labeko koban aurkitutako lehen Cro-Magnon-gizakiaren kulturako aztarnak.

Baina non gordetzen dituzte? Nola kontserbatzen dira denboraren eraginez ez kaltetzeko? Irunen dagoen gordailuan, Gipuzkoako Ondare Higigarriaren Zentroan daude, eta bertan egiten den kontserbazio lana gizarteratzeko asmoz, bisita gidatuak antolatzea erabaki dute.

Hilabete bakoitzeko azken egubakoitzetan izango dira, otsailetik ekainera bitartean. 17:00etatik 18:00etara gazteleraz eta 18:00etatik 19:00etara euskaraz. Ondare kulturean doktore Urkiri Salaberriak eta Mari Jose Larrañaga historialariak gidatutako bisitak izango dira. Bertan ez dira pieza arkeologikoak edo historikoak aztertuko, horiek kontserbatzeko metodologia eta lana izango dira-eta protagonistak. Besteak beste, hezetasun mailaren garrantzia landuko dute. Hala, %20ko hezetasuna edo zuzenean ur azpian mantentzea behar duten piezen atzeko lana erakutsiko dute.

Lezetxiki hizpide asteen

Astelehenetik gaur arte, Aranzadiren XV. Arkeologia Jardunaldiak egin dituzte Donostian. Jardunaldiei hasiera emateko, Alvaro Arrizabalaga arkeologoak Lezetxikiko azken 20 urteetan egindako lanari buruzko hitzaldia egin zuen.

"Zaila izan da hoge urteko lana ordubeteko hitzaldi batean laburbiltzea. Lehenik eta behin, Bixente Barandiaranek egindako lana aipatu eta erreleboa zein puntutan hartu genuen azaldu nuen. Jarraian, stratigrafiari lotuta argi ez zeuden mailak



Gordailuko langile bat mantentze-lanak egiten. URKIRI SALABERRIA



Gordailuan dauden pieza historikoak apaletan sailkatuta. URKIRI SALABERRIA

argitzeko egindako lana aipatu nuen, eta kobazuloaren kronologia josteko egindako urratsak landu nituen. Amaitzeko, hoge urte hauetan egindako aurkikuntza garrantzitsuei errepaso egin nien. Besteak beste, urkiaren sagutxoak, mikro-ugaztunak, makakoa eta Neandertal-gizakiek itsasoan bildutako maskorrak aipatu nituen.

Donostian egindako hitzaldia Eskoriatzako museoan errepikatuko du martxoaren 21ean.

"San Telmoko gazteleraz egin nuen, eta bukatu bezain pronto Eskoriatzako euskaraz egiteko proposamena egin zidaten".

Bisita gidatua Lezetxikira

Bixente Barandiaranek bisitara emateko ekintzen artean, Udalak Lezetxikira bisita gidatua antolatu du maiatzaren 7rako. Udalako Ingurumen Eskolak gidatutako saioa izango da eta udal webgunean edo BAZen eman beharko da izena.

"Enpresek ez dute legea bete azken sei hamarkadetan"

JESUS UZKUDUN AMIANTOAREN BIKTIMEN ELKARTEKOA
Amiantoak sortzen dituen kalteez aritu da Uzkudun

Maite Txintxurreta BERGARA

Berriki Laudioko Udala zigortu dute amiantoarekin lotutako heriotzaategatik. La Nava, Izar eta Arcelor Mittal lantegiek ere antzeko zigorrak jaso dituzte amiantoaren erabiltzeagatik.

Nola hartu dituzte azken epai hauek?

Oso ondo. Azkenaldian, epaiek gehienak irabazten ari gara. Enpresek ez dute legea bete azken sei hamarkadetan, eta badirudi jendea dirua ukitzen diozunean soilik mugitzen dela. **Erakundeak ari dira enpresak zigortzen amiantoarengatik?**

Zenbat enpresak akordioak lotzen dituzte. Orain gutxi, Irungo enpresa batek kalte-ordainetan 200.000 euro emateko akordioa iritsi gara. Beste batzuetan gertatzen da ez dagoela enpresarik. Horregatik eskatzen dihardugu Gobernuak fondo bat sortzea, baina Madrilen esku utzi dute kontua. Eusko Jaurlaritzak gai honetan erreferente izan zitekeen, baina ez dute nahi.

Zer da amianto, zehazki?

Kanpotik ekarritako mineral bat, urte askoan erabili dutena, merkea eta oso ona zelako isolatzaile moduan. Gehienok ezagutzen ditugu uralitak teulatuetan, hoditeriak, eta abar. Baina fundizioetan, barkuetan, trenetan, baldosetan... denean erabili izan da, inongo neuririk gabe.

Ze ondorio dakartza amiantoak?

Sortzen duen kaltea ez da berehalakoa izaten, 30-40 urte pasata azaltzen dira sintomak. Pleurako minbizia sortzen du,



Jesus Uzkudun. UBANE MADERA

eta birrikakoa, ezarrikoa eta peritoneokoa ere sor ditzake. **Nola frogatu gaixotasun bat amiantoaren ondorioz sortu dela?**

Medikuek beti galdetzen dute zenbat erretzen duzun, baina ia inoiz ez ea non lan egin duzun. Berez, Osalari parte emateko obligazioa daukate, baina ez dute egiten. Orduan, guk zer egiten dugu? Ba, lehenik, jakin gaixo horrek non lan egin duen. Askotan, jendea ez da jakitun amiantoaren inguruan lan egin duela. Guk badakigu non erabili izan duten amiantoak, eta lotura horiek egiten ditugu. **Zenbat kasu artatzen dituzte?** Urtero lurralde bakoitzean ehun bat kasu izaten ditugu, batzuk gaixotasunarekin eta beste batzuk osasun zaintzan. Bestalde, jendea epaitegiara jo dezan animatzen dugu, eta sentsibilizazioa ere lantzen dugu.

Energia aurrezteko programa martxan ibarreko enpresetan

Debagoieneko Mankomunitateak industria arloko enpresetan energiaren kudeaketa hobetzeko programa berria jarri du martxan, 5 eta 50 langile arteko lantegiei zuzenduta.

Hiru puntu nagusi jorratuko dituzte programa horretan: energiaren erabilerearen barne azterketa -instalazio, ekipo eta erregaien erabilerearen ana-

lisisa-, enpresaren pertsonala energiaren eraginkortasunaren alorrean orientatu eta energiaren eraginkortasunik ezak sortutako kostuen balorazioa.

Egitasmo honetan parte hartu nahi duten enpresek martxoaren 3a baino lehen eman behar dute izena eta 100 euro ordaindu beharko dute. Izena eman edo informazio gehiago behar dutenek 943 79 30 90 telefono zenbakira deitu edo enpresa@debagoiena.eus helbidera idatzi dezakete.

Arrasaten egingo dute Euskaraz Bizi Eguna

Euskal Herrian Euskaraz elkartearen egun handirako goizetik iluntzera arteko egitarau mardula prestatu dute. Martxoaren 18an izango da, Arrasaten, eta, hain zuzen ere, "euskaraz bizitzeko hautuari bultzada emateko eguna" izan dadila gura dute

Maite Txintxurreta ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin antolatzen duen zortzigarren Euskaraz Bizi Eguna izango da aurtengoa. Martxoaren 18an ospatuko dute egun hori, eta aurtengoan Arrasate izango du kokaleku.

"Ahalduz ariketa praktikoa" bezala aurkeztu dute deitzaileek, eta "herri euskaldunaren eta euskararen alde egotetik harago, horren alde egiteko prest gaudela adierazteko egitasmoa" izan dadin nahi dute.

Gogoeta prozesua

Aurtengoa testuinguru berezian izango da, gainera. Izan ere,



Euskal Herrian Euskaraz-eko Koldo Zarate eta Iñaki Telleria, aurkezpenean. E.H.E.

Euskal Herrian Euskaraz elkartean *Izan, egin, eragin* izeneko gogoeta prozesuan murgilduta egon dira azken urtean, "berreuskalduntze-prozesuak egun bizi duen apalaldiak, bai mundu mailan zein Euskal Herrian gertatzen ari diren aldaketek" eragindako "krisi integralari" erantzuteko asmotan.

Hala, elkarrekin "goitik behera" berrikusi eta eguneratzea izan da gogoeta horren helburu nagusia. Bada, gogoeta horretan jasotako guztiaren emaitza bezala, *Euskal Herri euskaldunari ateak ireki* izeneko dokumentua osatu dute.

Normalizazioa helburu

Bada, Arrasateko jaialdiak "euskararen normalizazioa helburu duen jardueraren fase berri batera eramateko eredu izan nahi du". Hala, euskaraz bizi nahi dutela erakutsiko dute 12:30ean Kulturaren egungo duten ekitaldi nagusian.

Hortaz, Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin euskaldun eta euskaltzale orori dei egin dio martxoaren 18ko hitzorduan parte har dezan.

Euskaraz Bizi Egunaren egitaraua

- **10:30** Txupinazioa. Goizean, artisauen azoka
- **11:00** Umeentzako jolas, tailer eta puzgarriak
- **12:30** *Euskaraz bizitzera* goaz ekitaldia (Kulturaren)
- **14:30** Herri bazkaria azoka plazan (15 euro)
- **17:00** The Hans Blue Band
- **18:00** Bertso saioa: Alai Martin, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia
- **19:30** Sakatu elektrozarangarekin Mural kalejira
- **21:30** Kontzertuak: Dirty Brothers, Willis Drummond, Ezten Giro, Gero, DJ Jo Ta Txo.
- **Egunean zehar:** Kilikiak, trikitaliak, dantzariak, Portaloiko abesbatza, txistulariak, kontzertuak....

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Lurralde batek industria bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.
Hori ekonomia da.

ORAININDUSTRI4.0
Laugarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/industria4-0



Javi Heriz boluntarioa gizon nagusi bat paseatzen. TOMAS ATXA

Boluntariotzarako errelebo beharra

Ibarrean 94 pertsonak egiten dute boluntariotza, zaharren egoitzetan, ospitaleetan eta eguneko zentroetan. Nagusiak zaintzea, laguntzea, kalera paseoan ateratzea, haiekin berbetan jardutea eta, bereziki, irribarre bat ateratzea dute helburu

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Gipuzkoan sortutako elkarteak da Nagusilan, Donostian, 1995ean, eta, irabazi asmorik gabe, borondatez joaten den jendeak osatzen du taldea. Nagusilan erakundeak adin nagusikoen giza boluntariotza egiten du, eta zaharren egoitzetan, ospitaleetan, eguneko zentroetan... adin nagusiko pertsonak animatzea, entrenitzea eta haiei laguntzea dute helburu. Boluntariotza egiten dutenen beharrak, aldiz: pertsona nagusiak zaintzea, laguntzea, kalera paseoan ateratzea, haiekin berbetan jardutea, enkarguak egiten laguntzea, enkarguak aritzea... dira, besteak beste, egiten dituzten lanak, oinarrian, pertsona nagusiak bakardadetik ateratzeko.

Debagoiengan hamabi zentro daude eta hamar egoitza kontrolatzen dituzte Nagusilan era-

kundeko kideek. Arrasaten, esaterako, Iturbiden, San Juan de Diosen, Santa Agedan, Uri-beko eguneko zentroan, azokan eta Goienetxen. Aretxabaletan, GSR zaharren egoitzan; Eskoriatzan, Aita Menni eguneko zentroan eta Jose Arana zaharren egoitzan; eta Aramaion, Lurgorri eguneko zentroan. Honela azaldu du Tomas Atxak, Nagusilaneko Arrasateko arduradunak: "Debagoiengan hainbat herritan egiten dugu lan; Ibarreko herrietan, hain zuzen ere. Izan ere, Oñatikoa eta Bergarako ez dugu guk eramaten. Guz-

"BELAUNALDI ERRELEBOA BEHAR DUGU, DITUGUN BEHARRAK ESTALTZEKO"

tira, 94 boluntario ditugu, eta belaunaldi errelebo beharra dugu; izan ere, beti dago arreta eta zaintzarako boluntario gehiagoren beharra, eta, gaixotasunen ondorioz, asko ezin izaten dira etorri...". Bestalde, Atxak azpimarratu du boluntarioen gehiengoak emakumezkoek osatzen dutela, eta gizonezko gehiagoren beharra dutela.

Zentro bakoitzak erabakitzen du zein pertsonak behar duen atentzioa, eta boluntariotzara joaten direnei, hala, helarazten diete. Horrez gain, boluntario batzuk gehiago inplikatzeko dira beste batzuk baino. Hone-la azaldu du Atxak: "Iturbide egoitzara taldetxo bat goizero joaten da, gupil aukietan daudenak mezetera eramatera, eta hiru edo lau emakume bertan izaten dira egunero adin nagusikoei kapillara eramateko ger-

"Egoiliarrei aurpegia aldatzea da boluntariotzaren helburu nagusia"

TOMAS ATXA NAGUSILAN ERAKUNDEKO ARDURADUNA

Tomas Atxak 15 urte darama Nagusilanean eta boluntariotzaren duen garrantzia azpimarratu du, gaur egun jendearen beharra dutela gaineratuta. **Erakunde honen asmo nagusia zein da?** Egoiliarrei aurpegia aldatzea da boluntariotzaren helburu nagusia. Haiekin momentu bat pasatzea, eta laguntasuna ematea.

Boluntario gehienak erretiratuak al dira?

Bai, eta, gainera, ditugun boluntarioen gehiengoak emakumezkoak da, baina badugu Javi Heriz bezalako gizonezko boluntario azpimarragarria. Hark, esaterako, 110 ordu inguru egingo ditu hilabete batean, eta, gutxi gorabehera, 115 ordu izaten dira batez beste boluntario batek egiten dituen orduak urte batean. Hala ere,



I.B.

gizonezkoen beharra dugu, baita errelebo baten beharra ere, jende gazteagoarena. **Ekintza ugari urtean zehar; hurrengoak zeintzuk izango dira?**

Musika emanaldia izango dugu Aramaioko Lurgorri eguneko zentroan eta ondoren Arrasateko Iturbide egoitzan. Otsailaren 28an izango da, Inauteri-martitzenean, 17:00etan. Aramaion amaitzean, Iturbidera joango gara gero.

tu. Beste batzuk egoiliarrek paseoa ateratzera, karta-jokora, enkarguak egiten laguntzen eta bestelakoetan izaten dira egoiliarrekin arratsaldeetan. Hamabi laguneko beste talde bat astero joaten da Aita Mennira eta San Juan de Dios ospitaleko gaixoengana hilero joaten gara".

Hainbat ekintza urtean zehar

Musika eta antzerki taldeek boluntario gisa hainbat emanaldi eskaintzen dituzte urtean zehar. "Zentro bakoitzean bi egiten ditugu, hogeitaz. Jose Mari Soroa musikari donostiarra, esaterako, 84 urte ditu, eta euskal kanta eta denetarikoa kanta ezagunez dantzan jartzen ditu askotan egoiliarrek. 1.100 emanalditik gora eskaini dituzte gurekin, eta asko inplikatzeko den musikaria da. Jose Ignazio

"URTEAN ZEHAR HOGEI EKINTZA INGURU EGITEN DITUGU, MUSIKA EDO ANTZERKIA EKARRITA"

eta Roberto musikariak ere etortzen zaizkigu, eta Zumarraga-Urretxuko Jotero taldea ere gure ekimenaren parte da". Musikaz gain, antzezlanak ere izaten dituzte egoiliarrek, Oñatikoko Ikusi Makusi taldekoenak, esaterako, eta, ikuskizun eta musikaz gain, opari batzuen zozketa ere egin izan ohi dute. "Egoiliarrentzat, garrantzitsua da halako ekintzak egitea. Musika eta dantza oso gustuko izaten dute eta bizitza ematen die...".

Boluntario izateko

Erakundeak dituen boluntario gehienak erretiratuak dira, baina gazteak ere izan daitezkeela boluntario adierazi du Atxak. Eta gaineratu du 70 urtetik gorako boluntarioak direla batez beste Debagoiengan ari diren boluntarioak. Hala ere, ez du baztertzeko gazteagoak direnak ere elkartera hurbiltzea.

Hala, Nagusilan elkartearen parte izan nahi duenak Arrasate pasealekuan duten egoitzara gerturatu, 943 25 09 90 telefono zenbakira deitu edo nagusiarasate@hotmail.com helbidera idatzi dezake.

Ireki, Abrir, Ouvrir

IÑIGO ALBERDI, JUAN LUIS BARRUTIA ETA AMAGIOA ARISTEGI DEBAGOIENA

Orain dela hilabete batzuk, Euskal Herriko langileok Ireki ekimena jarri genuen martxan.

Honen helburua euskal preso eta iheslariak etxeratze bidean jartzea da.

Horretarako, lan eremu desberdinetan sinadura bilketari ekin diogu, presoekin etxeratzearen gaia eragile desberdinen lehentasuna ere izan dadin.

Ulergaitza egiten zaigu presoek eta hauen senide eta lagunak pairatzen duten egoera; are gehiago, orain dela bost urte borroka armatuari behin betiko amaiera eman zitzaioela kontuan hartzen badugu.

150.000 sinadura bildu nahi ditugu, inoiz egin den sinadura bilketa handiena lortzea da eronka.

Ez da apustu samurra, lantoki guztietako pertsona ororengana heldu nahi dugulako; lan zentroetako langileak, etxeko langileak, zaintzan dabilzanak, pentsiodunak, kooperatibistak, autonomoak, langabeak edota lana topatu ezinik dabilzan gazteak inplikatu nahi ditugu.

Norbanakoak egindako urrats txikien batuketak urrats kolektibo erraldoia ekar dezake.

Denon ekarpena beharrezkoa da, euskal preso, iheslari eta deportatuak etxeratze.

Gure helburuaren bidean, 20.000 sinadura batu ditugu.

Hemendik eta ekaina bitarte, baduzu aukera zure aletxoak jartzeko, sinadura bitartez edota zure lantokira hurbildu ez bagara gurekin harremanetan jarriaz.

Denon artean posible egin dezagun.

Leihotik begira ezazu

MALEN UGARTE OÑATI

Igande iluntze batzuetan moduan, *Salvados* telebista saioa ikustera eseri nintzen aurrekoan.

Oraingo honetan, beste askotan ez bezala, banekien zeri buruz hitz egingo zuten, eta, gaiak ukitu baino gehiago eragin egingo zidalako, irrika deseroso bat neukan.

Konektatuta deitu zioten erreportajeari.

Sare sozialek gure egunerokoan zein nolako lekua okupatzen duten eta nola ja gai hau arazo bilakatzen dabilen aztertu zuten.

Instagramerako erabilzaile izanda, *errealitate* hori ezagutzen/erabiltzen nuen; ez, ordea, en ezaren alderdia, terapian zeuden gazteen egoera.

Positibismo soziala erakustearen egungo moda.

Zygmunt Baumanekin itxi zuen saioa Evolek, eta filosofoaren egia burutik kendu ezinda ekin nion lerro hauek idazteari.

Zioen nola gure umeei –eta ez hain umeei– oparitu diezaiokogun gauzarik preziatuena denbora den, teknologia izan barik.

Denbora hutsa eta ez denbora bete beharra.

Denbora umeei eskaintzeko, gure zaharrei, gurasoei, laguneri, hain lagunak ez direnei, gizarteari, herriari, gure buruei, eta ezerezari. Noiz pasatu gara denbora pasatetik denbora okupatzera?

Aisialdia antolatuta beharrek denbora bihurtu al zaigu?

Nire buruari zartako gutxi ez, eta hara non saioa bukatu eta gutxira auto baten iragarkiarekin beste muturreko bat.

Gazte bat goibel ageri da bideoan kotxeo leihotik

paisaiari begira mugikorra eskuetan duela, ahots batek denbora leihotik begira ez galtzeko esaten dionean. Orduan, mugikorra hartu eta *Game of Thrones* ikus dezakeela ikustean irribarre marrazten zaio aurpegian. Toma.

Bat-batekotasuna, azkar bizitzea eta lan egiteko ohitura gogaikarria. Uneoro konektatuta eta *on line* egon behararen presioa, dena jakin beharra.

Eta bat-batean etxera *Aktualitatearen gakoak* izeneko astekariaren aitortza: "Egunero *bat-batean* gertatuak diruditen albisteekin oinarriaz gehiago jakiteko astekaria, albisteekin hain *ustekabe*an harrapa ez gaitzan".

Gain-estimulazio eta gain-informazioaren sasoiaren zer egin eta nola jokatu jakingo bagenu, uste dut leihotik begira denbora-pasa egongo zenik ez zela faltako.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOAKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOAKULARIAK

ARRASATE / Otarora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

GARRILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOAKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



ZABALIK

MARIJO DEOGRACIAS

Ateak zabaltzeko sarraillak

Kulturola egitasmoak Union Cerrajera izenari eustea nahi du Arrasate Zientzia Elkarteak. Hala irakurri dut #Puntua astekarrian.

Gogoan daukat, milurtekoaren hasieran-edo, Zerrajerako museo-proiektuaren harira, Juan Ramon Garairekin nola ibili ginen artean han ziren makina artean.

Zelako mimoz azaldu zigin *Arrasate Press*-en eta ATBn ondare hura gordetzea zein garrantzitsua den mondragoetarrentzat.

Gogoratu dut Antzuolan ere bazela desagertu zen jardun ekonomikoa: larrugintza.

Eta garai batean zurrategia gordetzeko egitasmoa ere egon zela.

Kalegoin zegoen eraikinak ez zuen zutik iraun –Bizkaiko Foru herrian dagoen eraikinaren oso antzekoa, bide batez–; eta

GURE HERRIKO EKONOMIAREN PARTE IZAN ZIREN FABRIKAK GURE KULTURAREN PARTE GISA

erreferentzia hori barik, oroimena gordetzeko aterpe barik, zaila da inongo memoriari eustea.

Antzuola.com webgunean esaten den moduan: "Industria horren azken aztarnak Telleria kokatuta zegoen eraikinean geratzen ziren,

baina toki horretan etxe berriak egin zirenean ezkutuatu geratu ziren".


Izenari eusteak badu izanaren aldarrikapenetik asko; salaketa egiteko bada ere. Astra kulturguneak (Gernika-Lumo), esaterako, horixe egin zuen. Armagintza enpresa izan zen, harik eta itxi zen arte. Ezaguna zen horregatik eta, urte asko igaro diren arren pistolarik egin ez dela han, oraindik ere gogoratzen da: bonbardatu ez zuten Gernikako eraikin bakarra. Gaur egun, baina, Astra sormenerako eta kulturaz gozatzeko erreferentziako fabrika bilakatu da. Badira 10 urte okupatu zutela lantegi zaharra. Bada hamarkada bat hiltzeko makinak egiteko zen lanlekuak bizitzeko eta gozatzeko proiektuak sustatzen eta elkarbanatzen dituela.

Gure herriko ekonomiaren parte izan ziren fabrika haiek gure kulturaren parte gisa. Are, ondasuna sortzeko balio izan zuten eta ondare bilakatu dira.

Sarraillak ez baitira soilik ateak itxeko.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



ZEUK ESANA

Mozorroak, sarritan, tematikoak izaten dira mutilendako eta horien bertso sexyak, berriz, neskatilendako

ZUKUGAILUA
DEBAGOIENA

Batzuek ahaleginak eta bi egiten dituzten bitartean, beste batzuek berdin jarraitzen dute, XXI. mendean gaudela konturatu ere ez dira egiten.

Nola liteke, oraindik ere, mota horretako mozorroak egotea merkatuan? Erizaina, suhiltzailea... ematen du mende bat atzera egin dugula. 3-4 urteko neskatilek horiek janzteak ez dauka ez hanka, ez buru. Debeka ditzatela

mozorro mota horiek, behingoz!

Edozelan ere, hau guztia esanda, gurasoek ere erantzukizun maila handia daukate: euren esku dago horrelako mozorro sexistak erosi edo ez.

Sala ditzagun mozorro sexistak!

PEDRO
DEBAGOIENA

Inauteriak irudimena askatzeko jaiak dira eta, nire ustez, ez litzateke mugarik

egon beharko mozorroak aukeratzeko orduan.

Hori bai, mesedez, ez ditzagun umeak holako mozorroekin jantzi. Lotsagarria da. Zelan daude salgai? Nork baimentzen du horrelakoak saltzea? Gobernua? Jantzi gehienak kanpotik etorrita, ezin al dira kontrolatu?

Nagusiek egin dezatela gura dutena, jantz dezatela gura dutena, baina, mesedez, ez ditzagun gure umeak lelotu eta sexismoan hezi.

HURRENGO ZENBAKIAN: AUZITEGI GORENAK DEBEKATU EGIN DU FACEBOOKEKO ARGAZKIAK BAIMENIK GABE ARGITARATZEA. Iritzia emateko posta elektronikoa: berriak@goiena.eus / Webgunea: goiena.eus.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Urbebeberria.
Administrazioa
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kuboa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Aranizabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ulane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ulane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaitzaram.

Diseinu arduraduna
Itzi Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Galtzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

PROTAGONISTA

"Ditudan bertso saioetan disfrutatzen saiatzen naiz"

MAIDER ARREGI BERTSOLARIA

Larraitz Zeberio OÑATI
Maidar Arregi bertsolariak (Oñati, 1996) XVI. Abra saria irabazi du. Oñatiarrak Joanes Illarregi leitzarrarekin jokatu zuen buruz burukoak.

Lehenengo eta behin, zorionak! Zer da Abra sariketa?

Eskerrik asko! Abra sariketa bertsolari gazteendako Algortan urtero antolatzen duten txapelketa bat da. Lehenengo aldiz hartu dut parte. Ez nengoen egonda.

Iritsi eta txapela jantzi.

Gustura egin nuen bertsotan eta gaiak orokorrean interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Egia da, baita ere, kontzentratzeko arazoak izan nituela: ostiral gaua zen, afafostea... nekea sumatzen nuen, baina lortu nuen horri kontra egitea.

Peru Abarrategi, Txaber Altube, Ane Beloki, Joanes Illarregi eta Unai Mendiburu bertsolariekin batera aritu zinen. Ondo ikusi zenituen?

Joanes Illarregi geratu zen bigarren, eta oso-oso ondo



Maidar Arregi txapela buruan Albeko lehendakari Trino Azkoitiarekin. ALBE.EUS

ibili zen. Besteak ere bai. Uste dut oso maila ona egon zela. **Aramaioko Peru Abarrategi nola ikusi zenuen?**

Oso ondo baita ere.

Hirugarren geratu zen. Pentsatzen dut Arabako

txapelketa dela-eta entrenatzen ibiliko dela, eta igartzen zen. Umerez eta gaien ondo erantzuten ikusi nuen.

Gaiak interesgarriak irudi zitzaizkizula esan duzu. Zeintzuk, adibidez?

Zortziko handian amamaren eta bilobaren paperean jarri gintuzten; egoitzara amama bisitatzeraz joaten ez den bilobaren eta haren amamaren arteko elkarrizketan. Betiko gaia da, baina niri asko gustatzen zaizkit horrelakoak. Puntuka, berriz, bakoitzari buruzko galderak erantzun behar izan genituen, eta asko eskertu nuen detaileak.

Denbora luzea eskaintzen diozu bertsolaritzari gaur egun?

Egia esan, ez. Ikasketak direla-eta Donostian bizi naiz orain, eta saiatzen naiz asteen behin bertso eskolara joaten, errutina bat mantentzeko. Ez dut galdu gura. Gainerakoan, badiut saiotxo batzuk, eta saiatzen naiz horietan disfrutatzen.

Aurreikusten duzu epe laburrean bestelako sariketaren batean parte hartzea?

Bai. Apirilaren 1ean jokatuiko den Osinalde bertso sariketan parte hartzeko asmoa daukat. **Eta saio hori prestatzeko asmorik badaukazu?**

Bai, baina, egia esan, ni ez naiz prestaketa bereziak egitekoa. Ez naiz koadernoarekin ibiltzekoa. Saiatuko naiz bertso eskolara asteen bitan joaten. Nahiago izaten dut bertso eskolara joan eta han ariketak egin.

HAU BE BADOGU!

Goiena, Instagram sare sozialean ere bai



Aste honetatik aurrera, Goiena Instagram sare sozialean jarraitzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Bertan, besteak beste, Goienaren eguneroko zereginak, argazki bereziak eta Debagoieneko txoko ezberdinak zabaltu ditugu, astero. Goiena Komunikazioa Taldearen kontu ofiziala goiena.eus da.

Masen eta Ibarretxeren hitzaldia, hizpide

Eguaztenean eskaini zuten presidente eta lehendakari ohiek hitzaldia, eta Kurtsala lepo bete zen. Sare sozialak ere iruzkinez bete ziren, eta *#IbarretxeMas* traola *rending topic* bilakatu zen. Hona hemen Juan Jose Ibarretxeren txioetako bat:

@LHKibarretxe: "Kursaal jauregia gainezka Artur Masen hitzaldirako. Parte-hartzeko eta ezagutzeko gosea daukan herria gara...".

ARATUSTEAK 2017

GOIENA TELEBISTA
HEMEN DEBAGOIENA

ASTELEHENA, 18:00, 20:00, 22:00

'JAIK' SAIO BEREZIA

EGUAZTENA, 21:30

goiena[™]
ZU HEMEN ZAUDE



Arrasateko gaiteroen txanda izango da aurten

Badira urte batzuk urtero kuadrilla ezberdin batek irakurtzen duela pregoia eta aurten dultzaineroen kuadrillaren txanda izango da; horrez gain, martitzenean Aratusteei amaiera emateko erreko duten 120 kiloko sardina prest dauka SUDC elkarteak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Urteroko ohiturari eutsiz, aurten ere badatoz Aratustek, eta, ohi bezala, zapatua eta martitzena izango dira egun berezietan.

Bihar, zapatua, 12:00etan herriko plazan egingo den pregoiarekin eta ondorengo desfilearekin emango zaie hasiera Aratusteei. Arrasateko dultzaineroek irakurriko dute pregoia aurten, eta, bide batez, haiek izango dute ardura taberna, mozorro eta karroza onenen saria erabakitzeke. Inaki Gurruztaga *Harristi* Aratustezaleak parte hartzeke dei egin die herriarrei. "Egurdiko desfilea oso polita izaten da eta herriarrei parte hartzera eta mozorrotzera animatu nahiko nituzke, denon artean giro ederra osatu dezagun", adierazi du.

Horrez gain, *Harristi*-k uste du ez daudela behar beste lokal karrozak prestatzeko eta horrek zaildu egiten duela kalean ikus-



lazko Aratusteetako irudi bat. Montserrat Caballe eta Freddie Mercury. IMANOL SORIANO

tea. "Lokal egokiak edukiz gero, jende asko animatuko litzateke karroza gehiago egitera", nabarmendu du.

Aurten ere, azken urteetan ohiko bilakatzen ari den moduan, ez da herri bazkaririk

egongo. "Orain dela lau urte antolatu genuen azkeneko aldir herri bazkaria. Indartsu hasi ginen kuadrilla batzordean, baina, azkenaldian, lau pertsona bakarrik ibiltzen ginen. 700 pertsona ikusten dituzu bazkaltzen,

eta hori guztia antolatzeko jendea behar da. Azken finean, erreta bukatzen duzu", adierazi du Aratustezaleak.

Azkenik, azaldu du Arrasaten Aratusteetan egoten den giroa hobetuz badoa ere, oraindik zerbait falta zaiola. "Aretxabaletan, adibidez, harrigarria da egoten den giroa, bai karroza eta parte-hartzaileei dagokienez, baita ikusten egoten den jende kopuruari dagokionez ere", dio.

Martitzenean, sardinaren hileta

Dagoeneko tradizio bilakatu den beste ekintza bat sardinaren hileta da, martitzenean Aratusteei amaiera emateko egiten dena. SUDC elkarteek hila-bete eta erdi inguru ematen dute egurrez, kartoiz eta GOIENA aldizkariaren ale ugaz osatutako sardina erraldoia prestatzen. Hain zuzen ere, martitzenean, 21:00etan, su emango diote sardina horri.

120 bat kilo ditu aurtengo sardinak. "Kiloei dagokienez, urtetik urtera arinagoak egiten ari garela uste dut", adierazi du Andoni Altzelaik, SUDC elkarteke kideak.

Hiru lagun ibili dira, gehienbat, aurtengo sardina egiten: Mikel Sanzberro, Juan Luis Arkauz eta Altxelai bera. Azken horrek erreleboa ez du hain erraz ikusten: "Ez dut samurra ikusten erreleboa, baina bitartean guk jarraituko dugu, ahal dugun heinean".

Aratusteetako egitaraua

Otsailak 24, egubakoitza

- **18:30** Arrasate Musikaleko ikasleen Inauterietako kontzertua Amaia antzokian.

Otsailak 25, zapatua

- **12:00** Pregoa Biteri plazan eta ondoren desfilea txarangarekin.
- **13:00** Sari banaketa, plazan.
- **18:00** Animazioa, txarangak lagunduta.
- **19:30 eta 22:30** Dantzaldia, Bide Batez taldearen eskutik.

Otsailak 26, domeka

- **19:30** *Idiot Txou* antzezlan, Ados taldearen eskutik.

Otsailak 28, martitzena

- **17:00** Mozorro desfilea, plazan.
- **17:00** Tomaxen Abenturak pailazoak, Amaia antzokian.
- **17:30** Erraldoi eta kilikien kalejira.
- **19:30** Dantzaldia, Alaiki taldearekin, plazan.
- **21:00** Sardinaren hileta.
- **22:30** Dantzaldia, Alaiki taldearen eskutik.

ARRASATE IRRATIA

Jon Alzak irabazi du Txatxilipurdiren txio lehiaketa

Goiena komunitatea

Txatxilipurdi / ARRASATE

Larunbatean eman genuen adierazera *Zurekin Arrasate euskaldunago* kanpainaren baitan martxan jarritako txio lehiaketako irabazlea zein izan den. Honako hau izan da lehiaketa irabazi duen txioa: "Euskarak ez dauka etorkizunik ez bada *#zurekin*, oztopoak gaindituz arituko gara elkarrekin, etxean, lanean edo kalean lotsarik gabe ekin!".

Jon Alza izan da txioaren egilea; beraz, zorionak, Jon! Eta nola ere, Txatxilipurdi elkartetik eskerak eman nahi dizkiegu txio lehiaketan parte hartu duten herritar guztiei!

Asteko protagonistak

Datorren astean, elkarrizketaren tarteetan, Ekimen Emakumeak Elkarteak antolatu duen *Artean* erakusketaren eta Aratusteen gainean egingo dute berba, besteak beste. Elkarrizketa tarteak, astelehenean egubakoitzera, 11:00etan izaten dira.

Iseo ikusteko sarrerak

Datorren egunean Iseoren kontzerturako –Kooltur Osteogunak– sarrerak zozkatuko dituzte. Iseo bera elkarrizketako dute eguneko saioan. Parte hartzeko, 943 25 05 05 telefonora deitu edota *irratia@goiena.eus* helbidera idatzi dezakezue.

"Makila jasota ere, ofizioa ikasten jarraituko dut"

MIKEL VELASCO ARTZAINA

Gomiztegiko Artzain Eskolaren partetik hurriz makila hartu berri, laster jarriko da lanean Musakolan dituen lurretan; Udalatxeko ardiekin egindako gazta saltzeko asmoa dauka

Jokin Bereziartua ARRASATE

Atzo eskuratu zuen, Gomiztegiko Artzain Eskolan, artzain izendatzen duen hurriz makila Mikel Velascok (Arrasate, 1990). "Ilusioz josita eta oso gogotsu" dago artzaintzari ekiteko; Musakolako lurretan "kalitate handiko gazta" saldu ahalko duela sinetsita dago. **Zergatik sartu zinen Artzain Eskolan?** Betidanik gustatu izan zaizkit artzaintza, ardiak eta animalien mundua. Aspalditik nuen buruan Artzain Eskolan sartzea, ahalik eta gehien ikasteko. Aurten animatu naiz.

Ofizialki artzaina zara. Pozik?

Bai, pozik. Hurriz makila jaso dugu, baina jasota ere, ofizio gehienetan moduan, bizitza osoan zehar joango gara ikasten.

Irailean hasita, sei hilabete egon zara. Zer moduz eskolak?

Oso ondo. Alde teorikoa eta praktikoa landu ditugu. Animaliekin tratatzen ikasi dugu, albaitariekin egon gara eta eurekin asko ikasi dugu, zelaian kudeaketa nola egin ezagutu dugu, esploazio ezberdinak ikusi... Denarik egin dugu. Sei hilabetetan ez du denbora larregi ematen gaietan sakontzeko, baina asko ikasten da. Eta ez ikasi bakarrik, zure proiektua aurrera ateratzeko laguntza eta bultzada ematen du Artzain Eskolak.



Velasco, Musakolako lurretan, *Dakar* izeneko artzain-bxakurrarekin. JOKIN BEREZIARTUA

Zenbat lagunek hartu duzue parte eskoletan? Nongoak dira?

Hamalau ikaskide izan gara, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritakoak. Nafarroatik lau, bizkaitar bat, arabarren bat ere bai eta gainerakoak gipuzkoarrak. Debagoienetik bi egon gara, Iker Hernandez arrasatearra eta ni neu. Eskolan batera ibili gara, baina praktikak leku ezberdinetan egin ditugu.

Zein da artzaintzaren egoera?

Garai bateko artzain kopururik ez dago, eta ukazina da behe-rantz doala. Horregatik, askok

diote ofizioa hil egingo dela. Nik ez dut uste hori gertatuko denik, artzaintza hor egongo da beti. Ez dut uste katea etengo denik; katea finagoa izango da, baina ez da apurtuko.

Zer duzu buruan etorkizunerako? Proiektu propiorik bai?

Musakola auzoko gure lurretan lanari ekitea da nire asmoa, Zeleta baserria zenaren inguruan. Bertan artaldea jarriko nuke eta Udalatxeko ardiekin gazta egiten hasiko nintzateke. Kalitate altuko gazta egitea da nire asmoa. Orain arte ikasten

eta lanean ibili naiz aldi berean eta orain, eskolak amaitu ditudala, denbora gehiago izango dut gure lurra txukuntzen hasteko. Izan ere, lan handia daukat aurretik.

Gazta saltzea duzu buruan, hortaz. Bidea ez da erraza izango, ala?

Oztopoak izango ditugu. Tramite eta agiri asko beharko dira, baimenak, bekak eta diru laguntzak... Prozesu burokratiko luzea izango da, lan asko, baina helburua lortuko dugu. **Proiektuak aurrera egingo duela sinistuta zaude, hortaz.**

Ilusioz josita eta oso gogotsu nago, bestela ez dago zereginik. Etorkizunik ikusiko ez banu ez nioke helduko. Merkaturatzeko prozesua, esaterako, zaila izango da; produktua ezagutzera eman, bezero-sarea osatu... Baina saltzeko argumentuak baditut.

Hernandez ere, bide beretik

Mikel Velascoren promozio berekoa da Iker Hernandez arrasatearra: "Erabaki nuen lehen sektorean lan egitea. Fraisoro eskolan hasi nintzen, eta gero, Artzain Eskolara joatea erabaki nuen, ardiekin mundua hobeto ezagutzeko". Eskola "ondo" dagoela dio, baina "motz" geratu zaiola: "Asko ikasten da; hala ere, esango nuke nahiko surrealista dela esatea artzain bat iritertzen dela sei hilabeteren ostean. Konturatu orduko bukatu egin da". Gazta egin nahiko luke, baina lehenago ikasten jarraitzea da haren asmoa.

Kirol taldeen artean 100.000 euro banatuko dira diru laguntzetan

Udal Gobernuak bilera egingo du martxoaren 1ean herriko 21 kirol talderekin, diru laguntzen deialdian azken bi urteotan egin diren aldaketen inguruan beharrezkoak diren azalpenak emateko. Gobernuak, "diru laguntzak are emankorragoak eta eraginkorragoak" izateko, hainbat aldateta administratibo egin behar izan zituen eta horrek zalantzak sortu zituen taldeen artean, bereziki justifikazio dokumentuei dagokienez. Bilera horretan aldatetak azalduko dituzte eta taldeek izan ditzaketan zalantzak argitzen saiatu. Gobernuak, ia egin bezala, aurten ere 100.000 euro bideratuko ditu kirol taldeen diru laguntzetarako.


OHARRAK

Arrasaten bizi diren oñatiarren topaketa

200 oñatiar inguru bizi dira Arrasaten eta aurten ere elkartuko dira, martxoaren 18an. Izena eman behar da Kajoi tabernan martxoaren 12a baino lehen; 40 euro ordaindu behar da. 14:00etan talde argakia aterako dute Herriko Plazan.

1939an jaiotakoak

Urteroko ospakizuna egingo dute martxoaren 11n. 12:30eko meza entzun ostean, batzokian bazkalduko dute; parte hartzeko, German Morenorekin (943 79 61 64) edo Karmelo Amozarrainekin (943 79 59 29) egon beharra dago.



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Indarrak hartzen

Egun batzuk hartu ditugu atsedenean kulunkatzeko; hilabete luzez, hezurretaraino sartu zaigun hotza uxatuko duen epelaren bila abiatzeko. Egun batzuk guretzako, orainera jauzi egiteko, berriro joan aurretik, non gauden gogorarazteko, nora goazen amesten jarraitzeko. Aspaldi eskuartetik ihes egin ziguten liburua berreskuratu ditugu, hauetan ordu luzez murgildu guran. Baina orrialdeak orduak baino abiadura txit azkarragoan pasatzen ditugu, eta liburuen elkartrukatzera

baino ez zaigu geratzen istorio berriei eutsi nahi badiegu.

Lasaitasuna behar genuen duen epelaren beste erritmo batez hitz egiteko, denbora beste erritmo batez bizitzeko. Eta tarteak tarteko,

"EGUN BATZUK HARTU DITUGU ATSEDENEAN KULUNKATZEKO; HOTZA UXATUKO DUEN EPELAREN BILA ABIATZEKO"

egunari arnas egiteko unetxoak lapurtu. Izan ere bada denbora bat zuri ere barne isiltasunak oihi egiten dituzuna. Eta orain kanpoko haizeak, barruan xuxurlatzen digunarenaren antzik ez ote duen galdetzen diogu elkarri; irla batera urrutiratzeak, nondik bai eta nondik ez isolatu gaitzakeen.

Atsedean egun batzuk hartu ditugu, etorkizunak dagoeneko eskaini dizkigulako beste hainbat plan interesgarri, eta beti dago ondo indarberrituta hasi!

25. URTEURRENA

Negua aprobetxatu orbanak kentzeko!

Aurpegiaren fotogaztetzea

Lehen 120€

Orain 100€

Eskaintza baliagarria 2017ko martxoaren 24ra arte

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

AMAGARA
Estetika Zentroa

RPS: 214/15

Hasi dira sekuenen neurketa-lanak egiten

Arrasate Zientzia Elkartekoek atzo hasi zituzten Monterron parkeko bi sekuenen garaiera zehazterako neurketa-lanak; takimetroa baliatuta, irinarekin 17 neurketa-puntu markatu eta emaitza formula matematiko batekin aterako dute

Jokin Bereziartua ARRASATE

Monterron parkeko altxor botanikoaren harribitxi famatuak diren sekuenak albiste dira berriro ere, Arrasate Zientzia Elkarteari esker. Bost sekuenen artean altuena zein den neurtzen dihardute AZEko Anton del Campo ingeniariak eta Juan Mari Osinaga aparejadoreak. "Del Campok susmoa du agertokiaren ezkerrean dagoen sekuenaren ondoan dagoen plakan jartzen duen datua, 40 metro neurtzen duela dioena, ez dagoela ondo. Uste du altuagoa izan daitekeela, eta bestea ez dagoenez neurtuta, biak neurtuko ditugu. Horrela jakingo dugu zein den sekuenarik



Takimetroarekin Monterrongo sekuenak neurtzen, atzo, eguena. LIBANE MADERA

altuena. Betidanik izan dira deigarriak eta gure herriaren bihotzean daude, gainera", dio AZEko kide Xabier Bengoak. Takimetro baten laguntzarekin eta kalkulu trigonometrikoen bidez jakingo dute zein den garaiera zehatza. Atzo, eguena, egin zituzten takimetroarekin lotutako neurketak, eguraldi egokia aprobetxatuta. Datozen egunotan, berriz, trigonometria aplikatuko dute, neurria jakiteko. Datorren astean jakinaraziko dute emaitza.

"Akats bat" bat babesterakoan

Bestalde, datu bitxi bat ere eman du Del Campok, agertokiaren ezkerreko arbolaren gainean, "Gipuzkoako altuena izateaz gain, oso garrantzitsua da. Hesi batez babestua dagoena baino garrantzitsuagoa; badirudi akats bat izan zela, ezkerrekoa zen babestu beharrekoa. Hau da, kartelaren ondokoa da babestu behar zena". Altuerari dagokionez, hark uste du 40 metro baino altuagoa izango dela: "Aldea metro erdikoa bada ez da ezer gertatzen, baina bost metro gehiago dituela frogatzen badugu, meretziko luke neurketa egitea".

Porra, Monten, baina sekuenekin

Herriaren gaiak eman duen zeresanaren adierazle da Anton Del Camporen semeak, Iban Del Campok, porra bat abiatu duela: "Apostuari saltsa apur bat jarri gura izan diogu, egubakoitzekoa txikiteo ezberdin bat izan dadila". Monte tabernan da porra: "Orain arte ezagunak izan dira Monteko ziklismo porrak eta horregatik bururatu zitzaizkion bertara jotzea; proposamena onartu zuten". Parte hartzeko bost euro ordaindu beharko dira, eta sekuenak altuaren metro kopurura gehien hurbiltzen direnak izango dira irabazleak. Lehen saridunarentzat boterearen %50 izango da, bigarrenarentzat %30 eta hirugarrenarentzat %20.

AZE elkarteak, baina, apustuaren aurrean argi utzi gura dute eurek duten "interesa berrak" dela sekuenen garaieraren gaineko "informazio zehatza" ematea; eta neurketa "eskarmen profesional handia duen teknikari kualifikatu batek" egingo duela. "Arrasate Zientzia Elkartean neurketaren bueltan sortutako apustuekin batera zerikusirik ez du", bukatu dute.

Jatorrizko lekura itzuliko da Tiburon kioskoa

Biteriko aparkalekuen irteera alboko lokaletara mugituko dira. Sanjuanetarako zabaltzea aurreikusten da, egokitzapenak egin ostean. Kioskoaren historiari jarraipena emanez, Maiztegi familia izango da lokalaren ustiaketaren arduraduna

Xabi Gorostidi ARRASATE

2006a ezker dago Tiburon prentsa kioskoa bere jatorrizko lekutik kanpo: Garibai etorbideko taxi aparkalekuaren alboan, hain zuzen ere.

2016ko azaroan, Udalak lur azpiko aparkalekuaren ibilgailuen irteera ondoan dauden hiru salmentaguneen ustiaketa lehiketa publikora atera zuen. Plegetan jasotzen zenez, aldizkariaren, egunkariaren, loteriaren, goxokien eta fruitu lehorraren edo bidezko merkataritzako produktuen salmentara bideratutako negozioak izan behar ziren.

Tiburon kioskoa izan zen lehiketara aurkeztu zen aukera bakarra eta saltoki gune handiena aukeratu zuen, Garibai etorbideetik gertuen dagoena. Kontzesioa 25 urterako egingo da eta urtero Udalarik ordainduko dion kanona 946,79 eurokoa izango da. Hitzarmena sinatzeke dago, baina bi aldeek akordioa lotuta dago.



Mikel Briñas, hainbat urtetan erabili duten kioskoaren barruan. XABI GOROSTIDI

Mendi erditik gorako ibilbidea

Maiztegi familiak 50 urte baino gehiago daramatza aldizkari eta egunkari salmentan eta Arrasaten erreferentzia dira prentsa kontsumitzaileen artean. 1977an jarri zuten kioskoa Biterin, bai-

na aurretik prentsa eskuz banatzen aritzen ziren.

Tiburon kioskoa jaio zenetik Balanzategi-Maiztegi familiak ustiatu du beti, eta behin haren jabe izan zen Angel Balanzategi jarri zuten kioskoa Biterin, bai-



Guztira hiru lokal daude aparkalekuen irteerako blokean. MIRARI ALTUBE

Beste bi lokalak alokatzeko aukera

Biteri plazako beste bi saltokiak oraindik libre daude. 25 urterako adjudikazioa eskaintzen du Udalak, 900 eurotik beherako urte osoko kanonaren truke. Obra saltokia eskuratzen duenak ordaindu beharko du eta interesatuek Hirigintza Sailera jo dezakete.

Prentsa kioskoa 1977a ezkerrean da Biteri plazan, errepidearen albo batean. Belaunaldiz belaunaldi mantendu den negozio familiarra izan da, eta Udalak *pozik* azaldu da berriro bere tokira itzultzeaz gain, Maiztegi familia izango delako Tiburon jarraipena emango dion familia.

Sanjuanetarako prest

Sanjuanetarako zabaltzea espero da. Hala ere, aurretik lanak izango dituzte lokalean dagozkion egokitzapenak egiteko. "Lokal

berriaren biltegia antolatzeko aukera gehiago izan ditzakegu, orain mugatuago gaudelako", adierazi du Mikel Briñasek, kiosko arduradunak. Angel Balanzategi sortzailearen biloba da, beraz, negozioari heltzen dion hirugarren belaunaldikoa.

Lekuz adatu arren, ohiko ordutegian jardungo dute Tiburonen: astelehenean egubakoitzera, 06:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta zapa-tuetan eta domeketan, berriz, 06:00etatik 13:00etara.

Deskontu Sarea, abian!

Orain,
BERRIAlagunek
deskontuak tokiko
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
berria.eus/berrialaguna/deskontusarea

ABIZENA, IZENA
01234567

Zure ekarpena deskontuen bidez berreskuratuko duzu:

<ul style="list-style-type: none"> > Dendak > Jatetxeak > Museoa 	<ul style="list-style-type: none"> > Landetxeak > Ikuskizunak > Aisialdi guneak
--	---

Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua BERRIAlagunaren webgunean
2. Inprimatu kupoi Deskontu Sarea ataletik edo deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan BERRIAlagun txartelarekin batera

Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!

ONDO PASA ARATUSTEETAN

ZATOZ FESTARA!

ARATUSTEAK 2017 ARRASATEN

ITZALA • MONTE • OKORETEGI • RUMBA • TXOKO II

Ford Mugarri Escolapiosen kantxara, bihar

Sailkapenean laugarren postuan dagoen Ford Mugarri Arrasate eskubaloi taldeak Escolapiosen kantxan, Bilbon, jokatu du bihar arratsaldean (20:00). Joan den astean Patxi Gartziaeren mutilek 25-25 egin zuten Urda-netakoen kontra etxean, eta liga hirugarren postuan amaitzeko borrokan atzerapausoa izan zen.

Azken biak berdindu eta gero, Mondratek garaipena behar du

Areto futbolean, Gipuzkoako txapelketan lider dagoen Mondratek geroago eta gertuago ditu atzeko kontrarioak, eta hor zeresana izan dute azken bi partiduetako berdinketek. Bihar, zapatua, Arrasatekoek Musakolan jokatu dute Inter Eder taldekoen kontra, 17:15ean. Atzealdean dagoen taldea da.

Puntu batengatik galdu izanari buelta ematera

MUK sailkapenean postu bat atzerago dagoen Burgosko Unibertsitatearen kontra jokatu du bihar Iturripen (18:30); Larreategik taldearen dinamika ona azpimarratu du, nahiz eta mingarria izan zen joan den asteko porrota: "Guk galdu genuen lehia"

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondragon Unibertsitate ligako zortzigarren garaipena eskuratzeko asmoz kantxaratu da bihar Iturripera (18:30). Garaipen horrek lasaitasuna ekarriko luke taldera, ez bereziki larri daudelako, baina bai EBARI eusteko beste aurrerapauso garrantzitsu bat izango litzatekeelako: "Gure atzetik datoz, baina partidu zaila izango da. Azkenaldian etxean baino kanpoan gabilta maila hobea erakusten, baina partidu oso garrantzitsua da, irabazi beharrekoa. Burgosko taldeak jokalarri berri bat fitxatu du, EBAn hamabi urtetako esperientzia daukana, eta ikusteko dago ze maila emango duten", adierazi du Larreategik aste barruan.

Minutu madarikatua

Burgosen kontra ahaleginduko dira joan den asteko partiduko azken minutua ahazten (64-63): "Partidu amaieran kontrarioak



Arantzabal, iaz Valle de Eguesen kontra jokaturako partiduan. GOIENA

aitortu zigun guk galdu genuela partidua. Minutu bat faltan 6 puntuko aldea geneukan, baina txarto kudeatu genuen azken minutu hori. Azken jokaldian ere gurea izan zen baloiaren jabetza, baina pare bat akats

egin genituen. Gertatzen diren gauzak dira, eta ikastea baino ez zaigu geratzen, partidua orokorrean borobila izan zelako. Dena dela, taldearen dinamika-rekin oso pozik nago, ondo gabilta lanean".

Drogen gainean gazteei zuzendutako berbaldia

Mondrak antolatuta, martxoaren 8an helduko dio gaiari Vicente Hueso adituak, Kulturaten (17:30)

X.U ARRASATE

Arrasateko futbol harrobiarekin egiten duten heziketa lanaren barruan, Mondrak hainbat berbaldi antolatu izan ditu orain arte; adibidez, elikaduraren gainekoak. Eta, oraingoan, drogamenpekotasunaren gaiari helduko diote: "Ez da gai horrekin bereziki arduratuta gaudelako, ez dugu gurasoen artean alarrik sortu gura, baina bai uste dugu aditu baten eskutik gazteei drogen gainean berba egitea positiboa dela, drogak hor daudelako", adierazi du Ramon Az-

karatek. "Mondra osatzen dugun jokalarri eta familiak substantzia toxikoen kontsumoari buruz informatzea eta kontzientziatzea da helburu nagusia". Hala, *Eman ostikada bat drogei* lelopean, eta Aita Menni

BERBALDIA 13 ETA 18 URTE BITARTEKO JOKALARIEI DAGO ZUZENDUTA, BAITA GURASOEI ERE

ospitalearekin elkarlanean, berbaldia egingo dute martxoaren 8an, Kulturaten (17:30).

Vicente Hueso adituarekin

Hizlaria Vicente Hueso Corral Aita Menni Ospitaleko psikologo klinikoa izango da. Aita Menni, Huesoren eskutik, urteak daramatza horrelako bilguneak eskaintzen Gipuzkoako ikastetxeetan eta kirol zentroetan. Saioa hezitzaileei eta gazteei dago zuzenduta, batez ere, 13 eta 18 urte arteko gazteei, eta, hain zuzen, drogekin eta haien ondorioekin lotutako gaiak aztertuko dituzte.

Berbaldian, droga ohikoenen gainean egingo dute berba, eta gazteek egiten duten erabilpenaren gainean. Besteak beste, alkohola, tabakoa eta haxixa izango dute berbagai.

Musika nagusituko da aurtengo Inauterietan

Badatoz Aratusteak, eta, haiekin batera, Arrasate Musikaleko ikasleek eskainiko duten Inauteri-kontzertua. Emanaldia gaur arratsaldean izango da, 18:30ean, Amaia Udal Antzokian, eta sarrera doakoa da gerturatu nahi duten guztientzat

Ane Vitoria ARRASATE

Arrasate Musikaleko hainbat taldek parte hartuko dute ekitaldi horretan. Besteak beste, banda gaztea, orkestra gaztea, haize-egur taldea, hari taldea, talde gaztea eta talde mistoa entzuteko aukera izango da; horrela, guztira 100 ikasle baino gehiagoren parte hartzea bultzatuta. Arrasate Musikalen ekintzen arduradun Edorta Aias-tuiren esanetan: "Joko diren piezak entzuteko oso atseginak izango dira eta aproposak Aratuste jaiak girotzeko". Kontzertu horretan, ikasleek era askotako musika piezak eskainiko dituzte; besteak beste, Benito

Lertxundiren *Baldorba*, Ramms-tein taldearen *Das Model* abestia eta Rasmus, D. Friozi eta M. Dawe taldeen kantak entzuteko aukera izango da. Abesti horien doinua lortzeko, hainbat eta hainbat instrumentuz baliatuko dira musikariak: biolin, saxofoi, fagot, klarinete, piano, gitarra, eta abarrez. Ahotsak ere nabarmenduko dira Amaia

KONTZERTUAN, IKASLEEK ERA ASKOTAKO MUSIKA PIEZAK ESKAINIKO DITUZTE

Udal Antzokian; izan ere, aipatutako abestiak interpretatu ahal izateko, abeslariak funtzekoak izango dira kontzertuan. Aratusteen jai giroarekin jarraituz, Arrasate Musikalek beste bi ekintza gehiagori ekingo die: batetik, bihar eguerdiko hamabietatik aurrera izango den kalejira. Ekimen hori txar-rangaren eskutik dator eta herriko kaleetan zehar gogoz joko dute eguna alaitu guran. Eta, bestetik, martxoaren 5ean, domeka, Arrasate Musikaleko Bandak eskainiko duen Inauteri-kontzertua. Guztira, bederatzik kantu eskainiko dituzte eta kontzerturako sarrerak,

oraingoan ere, doakoak izango dira. Emanaldia Amaia Udal Antzokian izango da, 12:30ean. Azken ekitaldi horrekin, Arrasateko Bandak amaiera emango die aurtengo Inauteri jaiari.

'Festara' pailazo ikuskizuna

Musikaz gainera, baina, antzependenerako tokia ere badago Arrasateko Aratusteetan, *Festara* ikuskizunari esker. Tomaxen Abenturak pailazo konpainiaren eskutik datorren ekitaldi horretan, Tomax bera eta Muxututako abestiak interpretatu ahal izateko, abeslariak funtzekoak izango dira kontzertuan. Aratusteen jai giroarekin jarraituz, Arrasate Musikalek beste bi ekintza gehiagori ekingo die: batetik, bihar eguerdiko hamabietatik aurrera izango den kalejira. Ekimen hori txar-rangaren eskutik dator eta herriko kaleetan zehar gogoz joko dute eguna alaitu guran. Eta, bestetik, martxoaren 5ean, domeka, Arrasate Musikaleko Bandak eskainiko duen Inauteri-kontzertua. Guztira, bederatzik kantu eskainiko dituzte eta kontzerturako sarrerak,

Kukairen 'Oskara' ikuskizuna maiatzean izango da Arrasaten

A.V. ARRASATE

Jada finkatuta dago bertan behe-gegitu zen Kukai taldearen *Oskara* ikuskizunaren data. Maiatzaren 27an izango da, Amaia antzokian, 19:30ean. Dirua itzultzeari dagokionez, hainbat erabaki hartu dira: sarrerak Internet bidez erosi zituztenei, dirua euren txartelera bueltatuko zaie, eta, ikuskizunera joan nahi izanez gero, sarrerak salgai jartzean erosteko aukera izango dute. Leihatilan erositako bezeroei dagokionez, orduan erositako sarrera ona da; hau da, sarrera bera izango da, baita eserlekua ere. Aldiz, ikuskizunera joateko asmorik ez dutenei, dirua bueltatuko diete. Baina sarrera Kultura Bonuaren bitartez erosi baldin bazuten, dirua bueltatu beharrean, beste ikuskizun edota zinema emanaldi baten truke aldatu ahal izango dute. Sarrerak salgai egongo dira gaur eguerdiko hamabietatik aurrera.

DENOK BATERA PRESOKA KALERA!

IZAN GAIZTUAK KARNABALETAN!

DAT JAI ZALE ARRASATE ILUNTZ OSORIK TAUPA EKAITZ BASATI

AZKEN 5 ETXEBIZITZAK
Berehalako eskura ematea martxoan
*Garajea barne martxoaren 31 arte

AZKEN ATIKOA SALGAI
91,13 m² - 339.500 € + BEZ*

5^o

81,05 m²
324.000 € + BEZ*

72,21 m²
233.000 € + BEZ*

84,07 m²
278.500 € + BEZ*

1^o

66,03 m²
225.500 € + BEZ*

BIBAI Deba kalea 3, Arrasate 943 25 38 21 info@inmobibai.com www.inmobibai.com



Ibarra kiroldegia irekia aldamioz beteta. MIRARI ALTUBE

Kalteak zenbatu eta zelan aurre egin erabaki behar

Ibarra kiroldegia zabalik dago astelehena ezker eta zerbitzu guztiak abian daude. Aldamioak jarri dituzte barruan eta kanpoan, apurtutakoak garbitu eta lanean hasteko, eta Udalak egunotan erabakiko du zein obra egin eta zelan finantzatu horiek

Mirari Altube ARETXABALETA

Joan den aste bukaeran aldamioak jarri ostean, kiroldegia eguneroko martxa hartu du. Zerbitzu guztiak abian dira astelehenaz geroztik eta erabil-tzaileek normaltasunez dihardute: "Jendea harrিতта dago kaltearen tamainarekin", adierazi du Udaleko Kirol teknika-ri Asier Mujikak.

Aldamioak barruan eta kanpoan

Kiroldegi barruan jarritako aldamioekin segurtasuna bermatu gura izan du, sarrerako eta harmailen gaineko sabai-leihoen segurtasuna, hain zuzen ere. Leio horietako kristalak aldatzeko garabi bat etorriko da aurrerago: "Garabiarekin sabai-leihoko kristalak kendu eta berriak jarriko dituzte, baina kristal berriak noiz etorriko diren ez dakigu oraindik. Eskaera egiten den momentutik gutxienez sei bat aste beharko direla esan digute", jakinarazi du Mujikak.

Kanpoaldean ere jarri dute aldamioa, Deba ibai aldera ematen duen aldean, hain zuzen ere. Fatxadaren apurtuta geratu diren kristalezko xafila guztiak kenduko dituzte horrekin. Xafila horien ordez zer jarri erabaki behar dute orain, eta, horretarako, kiroldegia diseinatu zuten arkitektoekin izan dira: "Arkitektoek proposamen bat aurkeztu digute, fatxadara lotuta joango litzatekeena eta segurtasun aldetik, behintzat, bermeak emango litzatekeena", dio Mujikak, baina oraindik ez dute inolako erabakirik hartu. Unai Elkoro alkateak zera gaineratu du: "Barruko egitura agerian geratu da orain, kristalezko babesgarri hori jausi

KALTEEN ESTIMAZIO ZEHATZA EGINDAKOAN ERABAKIKO DUTE ZEIN LAN EGIN ETA ZELAN FINANTZATU HORIEK

denean; hortaz, hori babestea komeni zaigu lehenbailehen, euriarekin arazorik izan ez dezagun. Zer jarri horretarako erabaki behar dugu, baina seguru egon kristalik ez dugula berriz erabiliko!".

Eguzki plakak apurtuta

Otsailaren 13ko haizeteak beste kalte batzuk ere eragin zituen kiroldegian: "Hogei bat eguzki-plaka apurtu zituen, eta aire girotuak eta tximiniaren batek ere kalteak izan dituzte", adierazi du Elkoro. Horrez gain, solariumeko belarra kristalez beteta dago eta hori zelan garbitu erabaki beharra daukate. "Egunotan gabilta egiten kalteen estimazio zehatza eta aurrekontua egingo dugu gero", esan du Mujikak. Zein lan diren egin beharrekoak zehaztuko dute lehenengo eta horrela jakingo dute zein kostu izango duten horiek. Behin hori guztia mahai gainean jarrita zelan finantzatu erabakiko dute.



EH Bilduko kide Irati Pagoaga eta Ion Albizu aldizkariarekin esku artean. M.A.

Komunitatea indartu gura du EH Bilduk parte-hartzea sustatuta

Webgunea jarri du abian eta 'Atx' aldizkariaren bigarren zenbakia aterako du; hitzaldi sorta ere iragarri dute

M.A. ARETXABALETA

Herritarren parte-hartzea bultzatu gura du Aretxabalek EH Bilduk; horretarako, "herritarren ahaldunduko" dituztela iragarri dute Ion Albizu eta Irati Pagoaga zinegotziek. "Landu egin behar da parte-hartze kultura, eta herritarren ahalduntzeko tresnak jarri gura ditugu eskura", jakinarazi dute. Horretarako, webgunea jarri dute abian, bidegintza landuko dute eta *Atx* aldizkaria banatu, besteak beste.

'Atx' aldizkaria etxetara

Atx aldizkariaren bigarren zenbakia datorren astean banatuko dute etxe guztietan: "Jon Sarasuaren eta Paloma Martinezen arteko elkarrizketa jaso dugu eta udal aurrekontuen berri eman ere bai, beste hainbat konturekin batera", dio Albizuk. Webgunea *-atx.eus-* ere abian dute eta aldizkariaren edukiekin batera *-sa-*

Zaindariaren eguna dute Basotxokoek eguaztenean

Aingeru Guardia eguna ospatuko dute erretiratuen elkarteak kideek martxoaren 1ean. Kultura ibilaldia egingo dute 11:00etan, Santutxutik udaletxeraino, Aitor Antxiak gidatuta, eta ondoren, salda hartuko dute. Gero, Sara jatetxera joango dira bazkaltzera eta dantzaldia ere izango dute *-autobusa 13:15ean; itzulera 18:15ean-*.

konago landuta batzuetan *-beste hainbat kontu jasoko dituzte han. "Bidegintza ere landuko dugu. Hainbat gairen gaineko bideoak sortu eta emango ditugu webgunean, eta Whatsapp bidez zabaldu ere bai"*, dio Albizuk.

Hitzaldiak EHBilgunean

Trebakuntza saioak ere egingo dituzte ahalduzko prozesu horren barruan. Hiru hitzaldi iragarri dituzte martxo eta apirilera. Martxoaren 7an Hodei Zenikaonaindiaren hitzaldia izango da: *Espazio publikoaren humanizazioa*. Martxoaren 21ean hezkuntzaren gainean jardungo dute: *Hiru hezkuntza proiektu, herri bat*. Eta apirilaren 4an Rebeka Ubera legebiltzarkideak fisikoki aktiboa den gizartearen gainean egingo du berba: *Bizitza aktiboa, osasuna eta herrigintza*. Hitzaldi guztiak Herriko Plazako EHBilgunean izango dira.

Nerabeen gurasoendako jardunaldiak martxoan

Guraso Foroak antolatuta, 11 eta 17 urte arteko gazteen gurasoek trebakuntza ikastaroa izango dute komunikazioa indartzeko. Hiru saio izango dira *-martxoak 11a eta 25a apirilak 1- eta izena emateko epea zabalik dago, martxoaren 2a arte; Arkupera jo behar da horretarako (943-08 10 01), edo helbide honetara idatzi: gazteria@aretxabaleta.eus.*

Aratuste jaiak hasteko gertu dira kuadrillak

Musika eskolak antolatutako Egubakoitz Mehe eguneko ekitaldiekin hasiko dituzte mozorro festaren ospakizunak gaur, eta jaiak domekan egingo du eztanda: muntaia ikusgarriek, mozorro dotoreek eta parrandarako gogoak bat egingo dute kaleetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Gaurko Egubakoitz Mehe eguneko ospakizunekin batera murgilduko dira herritarrek Aratuste jaietan. Leizarra musika eskolako txistulariek, gaitariak eta dantzariak 17:30ean eskainiko dute ikuskizuna plazan.

Mozorro jaiak, baina, domekan egingo du eztanda herriko kaleetan. Sekretupean egin dute lan kuadrillek *-gaztetxo zein heldu- azken hilabeteotan, askok Azbe lantegian, eta etzi egingo duten kalejiran erakutsiko dituzte horiek. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira Ibarra kiroldegian 600 lagunetik gora, eta Mikel DJak girotuko die*



Herritarrek mozorrotuta iazko desfilean. IMANOL SORIANO

Egitaraua:

Aratuste-domeka

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:45** Txino dantza Santa Ageda neska-mutilen eskutik.
- **12:00** Kuadrillen desfilea. Ibilbidea: Araba ibilbidea, Mitarte, Durana, Errekabarren, Andramari, Mitarte, Durana eta Herriko Plaza.
- **13:00** Kalejira Akelarre txarangarekin.
- **14:30** Herri bazkaria Mikel DJak girotuta kiroldegian.
- **18:00** Kalejira kiroldegitik Herriko Plazara.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
- **19:00** Santa Ageda neska-mutilen azken dantza saioa.

Aratuste-martitzena

- **10:00** Neska-mutikoen dantzak Herriko Plazan.
- **11:00** Irulitza txarangarekin kalejira; jarraian Lehen Hezkuntzako ikasleek Aratusteetako dantza egingo dute.
- **16:00** Irulitza txarangarekin kalejira.
- **17:30** Buruhandien kalejira Irulitza txarangarekin.
- **20:00** Txin-en hileta, Santa Ageda neska-mutilen eskutik.

bazkalostea. Mozorro dotoreen saria izango dute, beste behin, eta domeka agurtzeko Santa Ageda neska-mutilen azken dantza saioa izango da plazan.

Martitzenean bigarren mozorroari helduko diote ikastetxeetako neska-mutikoei. Goiz partean dantzan egiteko elkartuko

dira, txarangak lagun eginda: 5 urtekoek txino dantza eta 2 urtekoek beste dantza bat. Eta gero, Aratusteetarako asmatutako dantza egingo dute guztiak elkarrekin. Arratsalde txarangak eta buruhandien girotuko dute; 20:00etan, Txin-en hiletarekin agurtuko dituzte jaiak.

Aratusteak

ondo pasan!!

EGUZKIGRAF
inprimategia

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Aretxabalekako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



Alebinen errendimendu taldea Iker Arriolabengoa koordinatzailearekin. MIRARI ALTUBE



Lezeta partidua jokatu ostean. IRAIDE ITURBE

Euskal selekzioarekin dabil Maren Lezeta

Aretxabaleta kirol elkarteko alebinen errendimendu taldeko kide den futbolari gazteari euskal selekzioak deitu dio. Otsailaren 8an entrenamendu saioa egin eta eguaztenez lehen partidua jokatu zuen Lezaman Bizkerre talde bizkaitarraren aurka

Mirari Altube ARETXABALETAK

Euskal selekzioak deitu dio UDAko Maren Lezeta (Aretxabaleta, 2005) jokalaria gaztetxoari eta eguaztenez lehen partidua. Getxoko Bizkerre taldearen aurkako lagunartekoa izan zen eta 5 eta 0 irabazi zuten: "Oso pozik nago. Hogei minutuko lau zati izan ditu partidua"

eta txandaka jokatu dugu guztiok; noski, pozik gaude bere lorpenagatik eta taldean sortu duen ilusioagatik", dio Iker Arriolabengoa, UDAko futbol eskolaren koordinatzaileak. Alebinen errendimendu taldean dihardu, hain zuzen, Lezetak, mutilekin: "Futbol eskolan sartu zenetik ikusi genion talentu handia zuela eta urtetik urtera maila ona

"Talentudun jokalaria"

UDAk ilusio handiarekin hartu du euskal selekzioaren deia: "Beti da pozgarria halako deia,

eman du, onenetakoa talde berruan. Umeek era naturalean hartu dute nahastuta jokatzeko; izan ere, futbolerako erraztasuna duenarekin ez da arazorik izaten eta Marenen talentuak eta jarrerak asko erraztu dute". Talentuaz gain futbolarikiko pasioa du Lezetak; ordu asko pasatzen ditu, umetatik, Ibarra futbol zelaian, baloi baten bueltan eta talde bat zein bestea jarraitzen. Aurrera begira izan-tuko duen ibilbidea nahiko argi dauka Arriolabengoa: "Maila

"Esperientzia oso polita izaten dabil"

MAREN LEZETA
FUTBOL JOKALARIA

UDAKo alebinen errendimendu taldeko jokalaria da. **Euskal selekzioak deitu ditu; pozik?** Bai, oso pozik. Otsailaren 8an entrenamendu saio bat egin genuen eta eguaztenez partidua jokatu Lezaman, Athletic entrenatzen den lekuan. Oso ondo pasatu dut orain arte eta esperientzia oso polita izaten dabil. **Mutikoekin jokatzen duzun bakarra zara UDAn eta,**



M.A.

seguru asko, inguruan ere bai; nolatan?

Ez dakit, ba... Nire taldea da hori, eta oso gustura nago.

Zelan dabil taldea?

Oso ondo hasi dugu denboraldia eta hala jarraitu gurako genuke.

Nesken taldearekin ere jokatzen duzu, ezta?

Bai, neure taldearekin partidurik ez dudanean. Horiakin ere oso gustura joaten naiz.

ona dauka eta kirolari on baten ezaugarri guztiak ditu. Begiradun bakarrik atzematen zaio..."

Alebinen taldea lehenengo

Azken partidua Kostkas taldearen aurka jokatu du UDAko alebinen errendimendua, eta 3 eta 1 irabazi zuten joan den domekan. Partidu guztiak irabazita lehenengo dago sailkapenean 9 punturekin. Hurrengo partidua martxoaren 19an jokatuko dute, etxean, Danena taldearen aurka.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Solidarioak gara? Zeinekin?

Gaur egun erraz jakin dezakegu non egiten diren kontsumitzen ditugun gauza guztiak eta informazio horrek ematen digu aukera kontsumo arduratsua egiteko. Dena dela, nik ez dut ikusten aldaketa handirik erosketak egiterakoan. Karnabalak direla-eta gehienok Interneten bilatzen ditugu mozorroak: merke, samur eta azkar egiteko. Horretaz aparte, gure eguneroko erosketak egiterakoan prezioari begiratzen digu lehenengoz eta, akaso, pasadatu bat non egiten den ziurtatzeko... Urrun gehienetan, ezta?

Joera honekin nahi eta nahi ez solidarioak gara: kapitalismoarekin, hain zuzen. Eta kapitalismoak ondorio batzuk ditu, ondorio horiek gure inguruan daude, batzuk gure gustukoak dira: eskaintza ugari eta merkea. Aldi berean, beste batzuek ez dira gure gustukoak: migrazioa, esate baterako. Dena den kapitalismoarekin solidarioak baldin bagara, merke eta samur nahi badugu, ez al gara solidarioak izan behar bere ondorioekin ere? Baina tira, ez bazaigu gustatzen solidaritate hau, beste modu baten kontsumitzeko aukera daukagu eguneroko. Gure esku dago.



M.A.

Txarapeako eskailerak bukatuta

Bukatu dituzte Txarapeako maldako eskaileren lanak. Herritarrek egindako bidexka ordezkatuko dute eskailera horiek, Belorrieta auzotik –Deba ibaiaren beste aldetik– Txarapeara igotzeko, hain zuzen ere. Arrapalarik ezin izan dute egin mald handia dagoelako. Hormigoizko eskailerak eta egurrezko eskudelak jarrita daude eta ingurua txukuntzen dabilta orain.

'Jokoz kanpo' antzezlan gaur Ibarra kiroldegian

Futbolaren bueltako gertaeren berri emango dute Borobil taldeko kideek *Jokoz kanpo* antzezlanarekin. Ibarra kiroldegian da, gaur, egubakoitza, 20:00etan, Real Sociedad Fundazioak, UDAk eta Aretxabaletako Udalak antolatuta.

Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota aktore ezagunak Anartz Zuazuk zuzendutako lanarekin etorriko dira, hausnarketa bultzatu eta barre eragiteko gertu. Hama-bost bat pertsonaia ekarriko dituzte kiroldegiko taula gainera hiruren artean, eta "irabazteko grina zoroan" jendeak "iparra zelan galtzen duen" erakutsiko dute.



Eguenean, Urdelardero eguna ospatu zuten Eskoriatzako ikastetxeek; 11:30ean plazan elkartu ziren guztiak Urdelardero kantua abesteko. I.B.



Txikienek hasi dituzte Inauteriak

Ostegun Gizen edo Urdelardero izenez Eskoriatzan ezagutzen den egunarekin hasi dira Inauteriak. Horrez gain, Inauteri-zapatu eguna eta Inauteri-martitzena ere ekintzaz beteta datoz; besteak beste: mozorro-desfile lehiaketa, kukumarroak...



Iaz, kukumarro bat Herriko Plazan umeen atzetik. I.B.

"Kukumarro, txorimalo..."

Eskoriatzako pertsonaia nagusiak diren kukumarroak irtengo dira jendea zirikatzeri eta beldurtzera Inauteri-martitzenean, eskuan puxika dutela. Ohiturak dioten moduan, umeen irainak entzun beharko dituzte. Esate baterako: "Kukumarro, txorimalo..."

edo dantzaldia egiteko 4-5 minutuko tartea izango dute. Parte hartzaile edo kuadrilla bakoitzari zerbaki bat emango diote, desfilerako ordena adierazteko, eta epaimahaia desfilea bukatutakoan elkartuko da erabakia hartzeko.

Arratsaldean, 19:00etan, plazan bertan jakinaraziko da mozorro-desfileko irabazleak nortzuk diren, eta sariak banatuko dituzte orduan. 14 urtetik gorakoentzako bederatzari sari izango dira eta 14 urtetik beherakoentzako, berriz, hiru.

Sari ugari aurtengo lehiaketan

Banakako eta bikotekako irabazleek 50 euro jasoko dute; mozorro onena daramanak, originalenak eta giro onena jartzen duenak. Haien moduan, hiru sari egongo dira hiru eta zazpi laguneko taldekoentzako; kasu horretan, 100 euro jasoko dituzte. Eta, azkenik, zortzi pertsonatik gorako taldeentzako 200 euroko sariak izango dira aurrez aipatutako hiru sailetan. 14 urtetik beherakoentzako, bi pertsonatik gorako taldeentzako hiru sari banatuko dituzte.

Paella herri bazkarian

Desfileko parte-hartzaileak plazan biltzean, DJ Moto izango da musika jartzen herritarrek girotzeko, eta, gosea egin ondoren, 14:30ean herri bazkaria izango da frontoian: haragi eta barazki paella eta tarta izango dute, sagardo lagunduta. Izan ere, kupa jarriko dute egun horretarako. Bazkalostean, Imanolek eta Unaiak girotzeko dute frontoia eta dantza egiteko aukera izango da bertan. 16:30ean, berriz, zentxoak eta poneyak izango dira Luis Ezeizako kantxan, eta arratsaldeko seietan dantzaldia izango da plazan Luhartz taldearekin.

Kukumarroak martitzenean

Inauteri-martitzenean, berriz, umeek urteroko jaialdia egingo dute, 10:30ean hasita, Joseba Inurrategi pilotalekuan, eta bertan hainbat dantza egingo dituzte Jose Arana eta Luis Ezeiza ikastetxeetako haurrek, urtero moduan.

Arratsaldean, berriz, kukumarroak izango dira, 17:00etan, Herriko Plazan, eta amaitezko, 18:00etan, Andoni Calvo, Josu Rodriguez eta Tirapu DJek alaituko dute plaza gaztetxoendako musika eta dibertsioa jarririta.

"Erreferenteak gara emakumeen saskibaloian"

AITZIBER SORIANO 'TXORI' ESKORIATZA TALDEKO SASKIBALOI JOKALARIA Eskolta da Aitziber Soriano Eskoriatzako taldean; antolatzaileari baloia igotzen laguntzen dio, nahiz eta batzuetan antolatzaile postuan ere jokatu duen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako senior mailako emakumezkoen saskibaloia taldeak deskantsua izango du aste bukaera honetan, Inauteriak direla eta, baina hurrengo jardunaldian liderraren aurka jokatuko dute, AYMA Goierri taldearen aurka, eta gogotsu daudela adierazi du Aitziber Soriano Txori jokalaririk.

Zenbat urtez Eskoriatzako saskibaloia taldean?

2003-2004 denboraldian heldu nintzen Eskoriatzara, Arrasaten junior talderik ez zegoelako. Beraz, atera kontuak... aurtengo denboraldiarekin hamahiru dira. Etxean bezala sentitzen nahiz hemen, familia txiki bat gara. Manuel Muñoz gure presidente ohiak hala esaten zuen beti, eta horrela izaten ahalegindu gara.

Eskoriatzako taldean ez dago herriko jokalaririk; nola da posible? Hamaika emakume gara taldean, gehienak Arrasatekoak, baina baditugu kanpotik etortzen direnak ere; bi jokalaririk Durangotik etortzen dira, esaterako. Aurtun ez dago Eskoriatzako jokalaririk.

Nola doa denboraldia?

Denboraldia ez da guk uste bezala joan. Hasierako helburuak ez dira bete. Agian, finkatuta geneuzkan helburuak handi geratu zaizkigu. Baina entrenatzaile aldaketarekin, poliki-poliki aurrera goaz, gauzak ondo eginaz, pixkanaka intentsitate eta erritmoa hobetuz, eta jokatzeko era berria barneratuz goaz. Ondo doala esan daiteke.

Senior mailako emakumezko talde bakarra da Eskoriatza, Debagoienean. Erreferenteak zarete?

Bai, egia da Eskoriatza saskibaloia emakumeen saskibaloian erreferente izan dela bailaran denbora luzean. Ez dakit zenbat urte diren, baina pentsa... ni hemen hamahiru urte noa... [Barre]



Aitziber Soriano Txori Eskoriatzako senior mailako saskibaloia jokalaria. GOIENA

"MANUEL MUÑOZ PRESIDENTE OHIAK ESATEN ZUEN MODUAN, FAMILIA TXIKI BAT GARA"

Horren harira, martxoaren 12an Areskoren martxa. Bertan ikusiko da emakumeen eta kirolaren alde herritarren elkartasuna?

Oso polita da herriaren elkartasuna ikustea. Eta zenbat jende dagoen inplikaturak gure kirolarekin eta gure kirolariekin. Herri txiki honetan horrelako klub handi bat izatea pribilegio hutsa da eta harrotasunez eramanen dugu Eskoriatzaren izena Gipuzkoan eta Euskal Herrian zehar. Aresko saskibaloia eskolak antolatzen duen bigarren edizio honetan, berritasun bezala, lasterketa egongo da, aurreko urtean jendeak hala eskatuta. Beraz, egun polita izango da.

Animo faltarik, behintzat, ez duzue izaten harmailetan, ezta?

Jende dezente etortzen da gu animatzera. Partiduak ostiraletan izanda, aurretik entrenatzen diren taldeak ere bertan

geratzen dira gu animatzen. Gainera, tabernan pintxo-potea egiten dute guk jokatzeko dugunean; beraz, ez dakigu gu animatza edo pintxoia jatera etortzen diren. [Barre] Eskerrak eman nahi dizkiet ostiralero hor egoten diren guztiei, askotan ez baita erraza izaten. Berrotasun hori nabari da eta gu ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara.

Hurrengo jardunaldia liderraren aurka. Irabazi beharra daukazue? Aste honetan deskantsua dugu. Ondo etorriko zaigu, ditugun lesio eta kargak kentzeko. Partidu inportantea izango da, liga amaierarako, ikusita aurreko astean Bera Bera Albisturren aurka galdu zutela...

Zein da denboraldi honetarako helburu nagusia?

Talde berria dugu aurreko urtetik, eta nahiko gaztea, esango nuke. Gure helburua ondo jokatzea da, egiten dugunarekin disfrutatzea eta poliki-poliki ikasten joatea. Baina taldea dagoen bezala ikusita, lehenengo bosten artean geratzea dela esango nuke. Hau nik orain finkatzen dudana helburua da, ea zer gertatzen den liga amaierarako.

Zerbitzu arloko lokal berriendako diru laguntzak

Jabego pribatuko lokal hutsak zerrendatu nahi ditu Udalak, negozio bat zabaldu nahi dutenei laguntzeko

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako otsaileko ezohiko osoko bilkuran tratatu zituzten gai guztiak aho batez onartuak izan ziren, eta aipagarriena hutsik dauden lokalak balioan jarri merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak hasiera batean onartzea izan zen.

Iaz udazkenean Perco ikerketa ataratako erabaki batetik abiatuta, Eskoriatzan hutsik dauden lokalen zerrenda egin nahi du Udalak, jabego pribatukoak direnak edota Udalaren jabetzakoak direnak katalogatuta. Izan ere, lokal huts horiek nolako erabilera izan dezaketen jakin nahi du Eskoriatzako Udalak, merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak herrian sortuz gero, beharrak asetzeko eta, bide batez, diru

laguntzak emateko, kasuan kasu. Hala, atzoko ezohiko osoko bilkuran, hasiera batean diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu zituzten aho batez.

Aipatzeko beste gai bat Bernabe Errasti jaunaren jabetzatik Mazmelara bideraino doan zatiaren Teilerriako bidea titularitasuna ikertzeko espedientea ebazteko erabaki-proposamena hartzea izan zen.

Teilerriako bidea

Aho batez onartu zuten erabaki-proposamena udalbatzako kideek. Honela azaldu zuen Joserra Zubizarreta alkatea: "Ofizialki, 2012ko ekainean egin zuen eskaera Javier Errastik Udalean. Erabilera eta titularitasunaren kezka zuen; hura aztertuta, bidea publikoa eta erabilera oinezkoena izango dela erabaki da".

Valdezcarayra joango dira Eskoriatzako gaztelekukoak

Martxoaren 4an Valdezcarayra joango dira Eskoriatzako gaztelekuko gazteak Aretxabaletako, Arrasateko eta Zaldibarko nerabeekin batera. Eskiatzen edo snowboarda egiten dakitenek edo ikasi nahi dutenek aukera aparta izango dute. 07:00etan irtengo dira Akeitako geltokitik eta itzulera 20:30 inguruan izango da. Izena eman edo informazio

gehiago jaso nahi duenak gaztelekura joan beharko du, eta izena emateko azken eguna otsailaren 26a izango da. Materiala alokatu nahi dutenek 50 euro ordaindu beharko dute, eta, norberak eramanez gero, 30 euro ordaindu beharko da. Kasu eramatea beharrezkoa izango da. Nork bere kaskoa izan ezean, han alokatzeko aukera egongo da, sei eurotan. Egun osoa han egingo dutenez, bazkaria eramatea gomendatzen dute antolatzaileek.

Odola emateko autobusa gaur Herriko Plazan

Euskal Autonomia Erkidegoko odol erreserbak hobetzeko, Euskadiko Odol Emaileen Elkartek dei egin du odol emateko datozten egunetan odola ematera animatzeko. Hala, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek antolatuta, martitzenean, Mondragon Unibertsitateko Huheziko aparkalekuan izan zen autobusa goizez,

odola eman nahi zuenarentzat. Gaur, aldiz, Herriko Plazan egongo da autobusa, 16:30etik 20:15era bitartean. Odola eman ahal izateko 18 urtetik gorakoa eta 70 urtetik beherakoa eta 50 kiloko pisua izan behar da, gutxienez, eta nortasun agiriarekin joan behar da bertara. Ospitaleetan duten premia asetzeko eta emaile berriak lortzeko izango dira bertan. Hurrengo hitzordua, berriz, martxoaren 13an izango da leku eta ordu berean.

Asmo berriekin datoz Axtrokiko merkatariak

Otsailaren 8an egin zuten urteroko bileran batzarkide berriak aukeratu zituzten, eta, iaz egindako ekintza guztien balorazioa egin ostean, aurtun egingo dituztenen gainean jardun zuten. Gainera, elkartearen 25 kide izatetik 29 izatera pasako dira

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Axtroki Merkatarik Elkarteko kideek urteko batzar orokorra egin zuten otsailaren 8an, eta, iazko balorazioa egiteaz gain, hainbat gai landu zituzten. Bestek beste, urtean zehar egindako ekintzak izan zituzten hizpide, baina aurtengo ekintza plana prestatzen ere ibili ziren. Horrez gain, kide berriak sartu dira elkartearen; izan ere, iaz 25 merkatari zeuden eta orain 29 kide izango dira.

Erronka berriak

Eskoriatzako egiten diren urteroko ekintzetan parte hartzea da proposamen nagusia, Gabez Takarraranen, Ferixian... besteak beste, eta ekintza konkretu hauek egin nahi dituzte: apirilaren denboraldi amaierako feria, maiatzean loreen feria, ekainean eta urrian Axtroki saskien zozketa eta abenduan Gabonetako kanpaina. "Bestalde, web orrialde baten garapena ere jarri gura dugu martxan, baina ikusteko dago", azaldu du Leire Errastik, Axtroki Merkatarik Elkarteko lehendakari ohiak.

Herriaren erosteko asmoak

Bestalde, *Hemen bizi, hemen erosi 1.500 axtroki saritan* Gabonetako lehiaketako irabazleei

Gimnasten erakustaldia

Eskoriatzako gimnasia erritmikoko kirolariak Arrasateko Uarkape frontoian izan ziren pasa den astean erakustaldia egiten. Argazkian: Irati Koskorrotza, Nahiare Carrasco, Nora Berezibar, Norah Murillo, Ainhize Saenz de Viteri, Maren Urrutia, Jone Etxaniz, Itziar Bengoa, Sara Otegi, Noa Gonzalez eta Oihana Koskorrotza Aretxabaleta-UDA taldekoekin.



Leire eta Javi Axtroki merkatari elkarteakoa, Eva, Mila eta Goretti saridunekin. I.B.

martitzenean eman zizkieten sariak saridunak argazkian. Axtroki Merkatarik Elkarteko 25 komertziotan banatu zituzten txartelak, debalde, merkatari txikiei bultzada emateko eta, saridunek herrian bertan egin ditzaten erosketak.

Komertzio bakoitzak 1.000 zenbaki banatu zituen bezeroen artean, eta zozketa urtarillaren 5ean izan zen. 500 euroko eta 100 euroko sariak eman dizkiete saridunei Axtroki Merkatarik Elkartekoek, eta elkartearen komertzioetan gastatu beharko dituzte.



Duela urte batzuetako Zuhaitz Eguna. GOIENA

San Juanzar baserrian egingo dute Zuhaitz Eguna, hilaren 12an

lazko landaketako hutsuneak betetzea eta egurrezko eskailerak egiteko ikastaroa, eguneko ekintza nagusiak

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Urterokoari eutsiz, Zuhaitz Eguna egingo dute aurtun ere Leintz Gatzagan, negua amaitsu baino lehen, Gurel gurasoen elkartearen antolatuta. Martxoaren 12an izango da hori, San Juanzar baserrian.

Goizeko hamaiketan hasiko dira ekintzak, baina nahi duenak izango du; izan ere, 10:30ean plazan elkartzeko asmoa dute antolatzaileek.

Bi ekintza izango dira, nagusiki, Zuhaitz Egunean: alde batetik, urtero egiten den zuhaitz landaketa egingo dute aurtun ere. "Iaz egindako landaketa batzuk ez dira ondo irten, landare batzuk ihartu egin dira. Horregatik, aurtengo asmoa da landaketak utzi zituen hutsuneak betetzea", azaldu du Aitziber Gorosabelek, Gurel elkartearen kideak.

Beste alde batetik, egurrezko eskailerak egiten erakutsiko die haur zein helduei Fermin Lezetak, herriko basozainak; azalduko du egurrearen erabilera nolako den, ze egur mota den egokia horrelako gauzetarako, noiz bota behar den zuhaitza, eta abar.

Gurelek antolatzen duen arren, herri osoari zuzendutako eguna izaten da Zuhaitz Eguna. "Egia da Gurelek antolatzen duela, baina herritar guztiek disfrutatu dezaketen eguna dela uste dute", dio Gorosabelek.

Hamaiketako

Azkenik, lanak bukatzean, hamaiketako egingo dute, gerturatzeko diren herritarrek etxetik eramandako janariarekin. "Izena ematen duen jende kopuruaren arabera, zerrenda bat egingo dugu eta bakoitzak zerbait desberdina eramango du", zehaztu du Gorosabelek.

'Photocall'-a egingo dute bihar, zapatua, Inauteriak ospatzeko

Herriko zenbait guraso eta haur ludotekan elkartu ziren pasa den domekan, Inauteriak prestatzen hasteko.

Hala, biharko egunerako apaingarriak eta dekorazioak egiten hasi ziren. Gaiarekin lotuta – baso sorgindua –, *photocall*-a egingo dute, eta horren dekorazioa prestatu zuten, besteak beste.

Soran Etxean egingo den bazkariari dagokionez, 30-40 bat pertsona espero dira 14:30 inguruan hasiko den bazkarian.

Bi menu egingo dira: alde batetik, haurren menua, makarroiak eta solomoa; bestetik, nagusien menua, arroza eta labean prestatutako saihekskia. Bestalde, bihar zozkatuko dute angula kiloa, Labidean, 19:00 aldera. Salmentei dago egingo dute, eta horren dekorazioa prestatu zuten, besteak beste.



Paula Amilburuk saio txukuna egin zuen Dulantzín, eta hirugarren geratu zen, lehen postutik 2,5 puntura. BERTSOZALE ELKARTEA

Pozik egoteko moduko lehen itzuli itxurosoa

Paula Amilburu hirutik hiru garaipen lortzetik gertu egon zen Dulantzín, lehen postutik 2,5 puntura amaitu baitzuen, hirugarren. Itxaropentsuak izan dira lehen hiru saioak, baina beste hiru erabakigarri geratzen dira, aurtengo finalistak definitzeko bidean

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Joan den domekako hirugarren finalaurrekoarekin amaitu da fase finaleko lehen itzulia. Eta ez nolana, gainera. Finalerako bide erdia eginda, emaitza, puntuazio eta sentsazio dotoreak batu dituzte Aramaioko Bertso Eskolako ordezkariak. Lehen hiru saioek bi garaipen, bi hirugarren postu eta laugarren eta bosgarren postu bana utzi dituzte Aramaioko bertsolarien-tzat. Itxaropentsu egoteko moduko emaitzak dira, baina hurrengo hiru finalaurrekoen aurretik ez dago ezer erabakita.

Paula Amilburu, txukun

Dulantziko kantaldiaren aurretik beste edizio batzuetan baino motibazio gutxiagorekin zegoela aitortu arren, txukun aritu zen Paula Amilburu domekan jokaturako finalaurrekoan.

"Ahots aldetik ondo heldu nintzen. Ebakuntza zela-eta ez nekien saio oso bati eusteko gai izango nintzen. Baina astearteko bertso

eskolako saioan ondo igarri nuen eztarria eta domekan ez zidan arazorik eman. Beldurtuta hasi nuen saioa, baina agurra botatzeaz bat lasaitua hartu nuen, eta oso gustura aritu nintzen ohol-tza gainean. Ez nion arreta handirik jarri besteek egiten zutenari eta nirea ondo egiten zuten bakarkako ariketan, eta saioa amaitzean oso pozik nengoan, nire aurretik geratu ziren bi bertsolari handiengandik hain gertu amaitzeagatik. Egia esan, ez nuen espero", adierazi du Paula Amilburuk.

Asier Otamendi gasteiztarra izan zen Dulantziko saioko irabazlea 237,5 punturekin, bigarren Oihane Perea 235,5ekin eta hi-

HURRENGO HIRU FINALAURREKOETAN ERABAKIKO DA FINALISTAK ZEINTZUK IZANGO DIREN

rugarren Amilburu 235ekin. Saioa hasi aurretik garaipena ezinezkotzat jotzen zuen Amilburuk. Bere onenak emanez gero hirugarren postua lortzea nahikoa zela adierazi zuen saioaren ataritan. Beraz, bere iragarpenik onenak bete egin ziren, eta lehen eta bigarren postuak atzamarrekin ukitzeko moduan amaitu zuen. Aipatu behar da Lierni Altuna alkatea izan zela Dulantziko saioko gai-jartzailea.

Hurrengo plazak erabakita

Hirugarren finalaurrekoaren ondoren, erabakita geratu da hurrengo hiru finalerdietako plaza-ten nortzuek abestuko duten.

Martxoaren 4an, Legutión, Manex eta Iker Agirre, Peru Abarrategi eta euren eskolakide Iñaki Viñaspre gasteiztarra ari-tuko dira. Hurrengo zapatuan, Xabi Igoak eta Paula Amilburuk prestatu du Uemako teknikarien batera, eta urtarrilean hasi ziren ikastetxeetan lantzen.

Lapurreta uholdeak kezka eta ezintasuna sortu ditu Aramaion

Ertzaintzak aztertutako aztarnek ez dute lapurrak identifikatzeko balio izan, baina lanean jarraitzen dute

X.G. ARAMAIO

Azken urtean Anboto eta Añai tabernek launa lapurreta jaso izanak kezka eta amorrua eragin ditu Aramaion. "Kezka eta ezintasuna sortzen dituzten ekintzak dira", adierazi du Lierni Altunak. Anboto tabernaren kasuan, azkena pasa den asteko martitzen goizaldean izan zen. Lapurreta azkarrak izan dira kasu guztietan eta makina txanpon-jaleko dirua izan dute helburutzat. Añai tabernaren kasuan, lau lapurretak uztailetik abendura bitartean jasan dituzte.

Gaizkileak ikusi dituzten bizi-lagunen arabera, Europa ekialdeko jatorriko bi gizonak egin dituzte lapurretak. Ertzaintzaren iritiz, talde-organizatu bateko partaideak egin dituzte. Haiek utzitako aztarnek ez dute Ertzaintzaren datu basearekin bat egiten, eta, oraingoz, ezin izan dituzte gaizkileak nortzuk izan diren argitu. Beste azterna batzuk azterte prozesuan daude oraindik, eta Ertzaintzak adierazi du bizilagunen kolaborazioa oso lagungarria izan daitekeela.

Aramaioko Udalak Facebook kontua zabaldu du

"Sare sozialen erabilera gero eta zabalagoa da gure artean, eta, webguneaz gain, aurrerantzean Facebook bitartez partekatutako dira notiziak, hitzorduak eta bestelako informazioak", adierazi du Udalak.

Sare sozial horrekiko apustua egin arren, Udalaren erreferentziako komunikazio kanala webgunea izango da.

'Arnasguneen hezkuntza proiektua' haurrekin lantzer

Uema osatzen duten herrietako ikastetxeetan DBHko eta Batxilergoko ikasleekin lantzen den programa da. Udalak euskal-duntzen ari diren artean, udal-errietako giroa gero eta erdaldunagoa dela ondorioztatuta dute Ueman, eta, hori konpontzeko asmoz, gazteengan kontzientzia sortzean jarri dute fokua.

Izan duen harrera ona ikusita, Haur Hezkuntzako ikasleengana hedatzea erabaki dute. Horretarako, Katxi porreta kooperatibaren eta Miren Amurizaren laguntza izan dute. Amurizak lau liburuko bilduma didaktiko bat prestatu du Uemako teknikarien batera, eta urtarrilean hasi ziren ikastetxeetan lantzen.

Gorbeialdeko aldizkariari izena jartzeko lehiaketa

Aldizkariari izen berria topatzeko lehiaketa abiatu du Gorbeialdeko Kuadrillak. Bost eta hamabost hitz bitarteko izena beharko du izan, eta proposamenak martxoaren 3a baino helarazi beharko dira.

Lehiaketako sarien eta oinarrien informazio osatua lortzeko, bisitatu Aramaioko Udalaren webgunea.

Mozorroak jantzi eta ondo pasatzeko aukera Aratusteetan

Bihar, zapatua, ospatuko dira Aratusteak Aramaion, eta giro onean eguna pasatzeko osagaiekin betetako egitaraua prest dago.

17:30ean hasiko du festak kale-learako bidea, frontoitik plazara abiatuko den kalejirarekin. 18:00etan mozerro lehiaketako sari banaketa egingo dute eta guztira lau sari banatuko dituzte; talde onenarena –gutxienez, lau partaide–, haur onenarena, 14 urtetik gorakoena eta mozerro-erri originalenaren saria.

Behin hori eginda, txokolate dastatzea egingo dute 18:30ean eta ondoren, festa borobiltzeko, disko festarekin gorputzak dantzatzan jarriko dituzte.



Jokin Balanzategi eta Ekaitz Gredilla, Atxabalpeko zelaian, lan-tresnak eskuan dituztela. XABI GOROSTIDI

Lehen mailako belar zaintzaile aramaioarrak

Ekaitz Gredilla eta Jokin Balanzategi aramaioarrak Atxabalpeko zelaia duen itxura paregabearen arduradunak dira. Hango berdegunearen mantentze-lanak egiten dituzte, eta euren lan txukuna Eibar taldearen denboraldi borobilaren isla da

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Futbol taldeak familia handiak dira. Zelaira irteten diren ha-maika jokalarien emaitzak ikusten diren arren, eurentzako lana errazten duen giza talde handia izaten dute atzetik. Sukaldariak, masajistak, begiraleak, administrazioakoak, delegatuak... asko dira fokuetatik kanpo lan garrantzitsuak egiten dituztenak, eta horien artean daude belar-zaintzaileak ere.

Atxabalpe, alfonbra baten pare Ekaitz Gredilla eta Jokin Balanzategi dira Atxabalpeko berdegunea baldintza egokietan mantentzeko ardura duten bi langileak.

Gredillak lorezaintza ikasketak egin zituen Gasteizen bi urtez, eta praktikaldia amaitu ostean hasi zen Atxabalpen lanean. Pertsona bakarrarentzat lan handia zela ikusita, Balanzategi batu zitzaion, hasi eta hilabete gutxira, eta ordutik hona bate-tzan jarriko dituzte.

Eibar taldeak akordioa lortu zuen Arrasateko Udalarekin Atxabalpeko instalazioak erabiltzeko. Alokairu sinboliko bat ordaintzeaz gain, bertako egokitzapen-lan guztiak bere gain hartu zituen Eibarrek, eta, besteak beste, hareazko zelai zaharra belarrezko bihurtu dute.

Baina inbertsioez gain, mantentze-lanak ezinbestekoak dira. Atxabalpera joaten den edonork bertako berdegunea alfonbra bat bezala dagoela ikus dezake, eta hori Aramaioko bi belar-zaintzaileen lan txukunaren emaitza da.

Hainbat zeregin

"Garrantzitsuenak belarra mozteak, ongarrria botatzea, zuloak

ZAZPI ORDU ETA ERDIKO LANALDIAK EGITEN DITUZTE, ZELAIA BALDINTZA EGOKIETAN IZATEKO

estaltzea eta zelaia margotzea izaten dira. Entrenamendu aurretik mozten eta ongarrria botatzen aritzen gara, eta, behin amaituta, jokalariek utzitako zuloak estaltzea tokatzen zaigu", adierazi du Gredillak.

Jokalarien lan-saioak 90 minutu bueltakoak badira ere, bikote aramaioarraren lanaldia zazpi ordu eta erdikoa da. "Jokalariek 11:00etan hasten dute lan saioa, baina gu 08:00etan hasten gara lanean. Mendilibarrekin hala eskatuta, belarra 24 milimetrora mozten dugu. Pertsona bakarrak hiru ordu behar ditu zelaia ondo moztuta uzteko", azaldu du Jokin Balanzategik.

Eibartartu gabe

"Jokalaria, entrenatzaile eta langutzaileekin erlazio oso ona daukagu, eta bigarren entrenatzailearekin pilotan jokatzera ere joaten naiz", azaldu du Balanzategik. Hala ere, Jokinek Athleticzale izaten jarraitzen du eta Ekaitzek, Realzale.

NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

Nire txikiak

Harkaitz Canoren poesia *luuuze* baten zati bat: "(...) Bizitzako gauza txiki hauengatik ez balitz... Zer? Ostia! bukatu esaldia". Nik nire txikiak zerrendatu ditut:

Autobusean mailu ondoko eserlekuan jartzen naiz, okupatuta egon denean lekua aldatzeko eskatu izan dut. Liburu berri bat hartzean azken esaldia irakurtzen dut. Pertsona bat haserretzen badabil lasai esaten dut, begietan sua nola pizten zaion ikusteagatik.

Hitz jokoak asmatzen ditut konbultsiboki eta filtro nahiko eskas bat pasatzen dutenak bakarrik esaten ditut ozenean –pentsatu esaten ez ditudanen kalitatean–. Egurrezko zotzak sudurzuloan sartzen ditut, uste dut masturbazio publiko onartura gehien hurbiltzen dena dela. *Ajdsnhsofjk* zanpatzen ditut teklak, egunen batean hitz bat agertuko den zain. Duxtan txiza egiten dut beti, neguan bereziki.

Eta otutzen zait maniek plazer minimo bat eragiten badute, bizio bihurtzen direla. Ostia! Eta oraindik ere esaldia ezin bukatuta, maniatika eta biziosaa...

Lagun Artean dantza taldea logotipoa berri bila dabil

Irudia berritzeko beharra ikusita, lehiaketa jarri dute martxan.

Edozein adinetako aramaioarrek har dezakete parte, eta, halaberrez, *Lagun Artean Dantza Taldea, Aramaio* hitzak jaso beharko ditu. Proposamenak liburutegian aurkeztu beharko dira martxoaren 3a baino lehen, eta irabazleak bi lagunetzako afaria jasoko du trukean.

Bizkaia Abentura Parkera irteera martxoaren 19an

Gorbeialdeko Kuadrillak familientzat antolatutako ekimena da. Gueñes herrian dagoen Bizkaia Abentura Parkera egun-pasa joateko irteera izango da. Umeei 8 euro ordaindu beharko dituzte sarreragatik eta autobu-sagatik eta helduek, aldiz, lau. Autobusa 09:40an aterako da Aramaioetik eta buelta 17:30ean egingo dute.



ARAMAIOKO UDALA

Baserritarren lana gorai-patuz

Naturaren Egunaren baitan, zapatu goizean San Martin Eskolakoek, Guraso Elkartekoek eta udal ordezkariak irteeratxoa egin zuten San Kristobalera, Lehen Hezkuntzako ikasleei pago motzen garrantzia helarazteko eta, bide batez, baserritarren lanak inguruan duen eragina balioan jartzeko. Gaur goizean, aldiz, fruta-arbolak landatu dituzte Haur Hezkuntzako ikasleekin.



Idea Lehaketako sarituak, eguazteneko sari banaketaren ondoren. JULEN IRIONDO

Igerilekurako eta goiko estaziorako ideiak nagusi

Aroztegiko erakusketan eta Udalaren webgunean herritarrek emandako 267 botoak eta epaimahaiaren iritzia uztartuz, Mariaren Lagundia ikastetxeko bosgarren mailako ikasle talde batek eta Maite Arantzabalek eskuratu dituzte lehenengo sariak

Julen Iriondo BERGARA

Umeen kategorian lehenengo saria lortu duen Mariaren Lagundiko bosgarren mailako ikasle taldearen proposamena izan da Agorrosingo kanpoko igerilekua handitzea eta hobetzea: "Igerilekua beteta egoten da eta lekurik ez da egoten batzuetan, eta gehieneko edukiera handitu egin beharko litzateke", zioen saria jasota, pozik, talde irabazleko kide Jon Igartuak.

Bigarren ideia onena abentura parkea egitea proposatzen duena izan da, eta hirugarrena Agorrosingo kanpoko igerilekuan kultur ekintzak egitearena, irabazleek ikaskideenak hauek ere. Elena Lete alkatea nabarmendu zuen "aisialdiarako eta zoriotsu izateko ideiak" aurkeztu dituztela umeek.

Helduen kategorian, berriz, lehenengo saria izan da Maite Arantzabalek; goiko estazioa biziberritzeko egitasmoa aurkeztu du berak. Irabazleak ezin izan zuen sari banaketan egon,

baina, haren ideia goraiatuz, Elena Lete gogora ekarri zuen Udala ari dela lehendik inguru hori txukuntzen: "Bergararondoko gune polita da, xarma duen gunea, berreskuratu nahi duguna; iaz hasi ginen garbitzen, eta etorriko dira hurrengo pausoak".

Bigarren saria Sara Martinezek eta Nerea Madariagak eskuratu dute, bizikletaren erabilera sustatzeko proposatutako alokairu sistemagatik: "Proposatzen dugu bigarren eskuko bizikletak izatea eta, ondorioz, hasierako inbertsioa beste era batekoa litzateke: egoera onean daudela ziurtatzeko azterketa egin beharko litzateke. Bestalde, ondo legoke parrilla eta otzara izatea, erosketak eta egiteko erabili ahal izateko; eta mugikorrek aplikazio bat, esango diguna zenbat bizikleta dauden alokairurako gune bakoitzean", zioen Sara Martinezek.

Hirugarren saria Aranzadi ikastolako ikasle talde batentzat izan da, herriko ondarearen

gaineko informazioa QR kodeen bidez emateko sistemagatik: "Gaur egun idatzizko informazioa bakarrik dago, eta QR kodeen bidez multimedia gehiago sartuko genuke: bideoak, audioak..."

Udala oso gustura geratu da lehiaketara aurkeztutako ideia kopuruarekin eta horien edukiarekin, baita bozketan parte hartu duten herritarrekin ere -267-. Orain aztertu beharko dute aurkeztutako proiekturik ba ote den aurrera eramateko modukoa, ba ote den bideragarria; berez, aurtengo udal aurrekontuan 100.000 euro daude gordeta proiektuotarako: "Nire nahia izango litzateke, bai umeen alorrekoa eta bai helduen alorrekoa, nolabait, gauzatzea; baina iritsiko da momentua hori iragartzeko"; gainera, lehiaketan iritendako beste hainbat ideia -osotasunean, zatiren bat edo berak izan ez arren, antzerakoak- Udalak esku artean baidarabiltzala zioen alkatea.

Espoloko frontoia hobetzeko lanak hasi dituzte aste honetan

Frontoia egoera txarrean zegoen, eta hormen inpermeabilizazio, txukunketa eta margotze lanak egingo dituzte; bizpahiru astetan amaituta egongo dira lanak. Lanok 13.300 euroko aurrekontua dute eta, behin amaitutakoan, "kirol instalazio berri eta egokiaz gozatzeko aukera izango dute bergararrek", Udalak azaldu duenez.



Frontoian lanean. BERGARAKO UDALA

Traste zaharrak biltzeko zerbitzuaren seinalizazio berria

Herriko hainbat gunetan, lurrean, TZ hizkiak margotu dituzte. Traste zaharren bilketarako seinalizazio berria da; aurrerantzean gune horietan utzi beharko dira altzariak, koltxoiak, lerro zuriko etxetresna elektrikoak eta lerro grisekoak. Zerbitzua martitzenetan izaten da, eta erabiltzeko 943-71 19 38-ra deitu behar da lehenengo.



Traste zaharren ikurra. BERGARAKO UDALA

Jatorriz bertakoak diren herritarrek gura ditugu Auzokorako

Goiena komunitatea
Auzoko / BERGARA

Auzoko egitasmoan parte hartzeko, jatorriz bertakoak diren herritar gehiago pozik hartuko genuke. Zuen laguntzarekin, euskaratik urrun bizi direnak euskarara hurbiltzea da gure helburuetako bat. Osintxukoa, emakumeena eta talde zabala ditugu. Izena emateko, Jardunen.

Martitzenera arte eman daiteke izena Pol-Polen bazkarirako

Martxoaren 19an izango da Pol-Polen 75. urtemugako ospakizun bazkaria. Mendi taldearen egoitzan, Gracian mertzerian, Lazkano oinetako dendan eta Pol-Pol tabernan eros daitezke txartelak, eta martitzena izango da horretarako azken eguna. Txartelaren prezioa 35 euro da, eta, jan-edanaz gainera, giroa ere ziurtatuta dago.

'Alizia' musikalerako 'casting'-a egingo dute astelehenean

Alizia izenekoak izango da Bergarako Musika Eskolaren hurrengo proiektu musikala. Hain justu, ikuskizuneko protagonista aukeratzeko da orain egin behar dutena, eta baita harekin batera abentura ugari biziko duten beste pertsonaia ere. Horretarako, casting-a egingo dute astelehenean, hilak 27, 16:30ean, Musika Eskolan.

OHARRAK

Eguazteneko Azoka

Astero beharrez berezia hilean behin egitea erabaki zutenetik, oraingoa izango da aurrenekoa -18:00etan-. Amaia Aierbek hitzaldia egingo du, erlauntzeko produktuei buruz.

Odol ematea

Martxoaren lean, eguaztena, 18:00etatik 20:00etara, anbulatorioan.

Drogarik gabeko herri baten alde, prebentzioa

Bergarako Osasun Sareak adostu du aurten ze gai landu: gazteen osasun hezkuntzan lan egingo dute, batetik; osasun maila hobea lortzeko herrian dauden zerbitzuak ezagutzera ematea da beste egiteko bat; eta bidegorriak egokitzea, hirugarrena

Julen Iriondo BERGARA

Azaroan jarri zuten abian Bergarako Osasun Sarea. "Sare txikia baina eraginkorra izateko helburuarekin" ekin zion bideari -hala adierazi zuen hasiera hartan Elena Lete alkatea-, eta orain, hiru hilabeteren ondoren, urteko plangintza onartu du. Denbora honetan egindako bileretan herriko ikastetxe guztiak, Jardun elkarteak, Caritas, San Joxepe, ASPACE, Martxantera, Kattalin, Pol-Pol taldea eta Bergara Kirol Elkarteak bildu izan dira, eta astelehenean egindako batzarrean adostu zuten 2017an ze gai landu.

Batetik, gazteen osasun hezkuntza -gazteen osasunean eragina izan dezaketen faktoreekiko prebentzioa-: "Erakunde, ikastetxe eta eragile guztiekin elkarlanean arituz, alkoholik eta drogarik gabeko bizimodua sustatu behar da, eta horien inguruko informazioa eman. Azkenean, gazteei eman behar

zaie erantzukizuna, arazoa da-goela onar dezaten eta, denen artean, drogak eta alkohola Bergaratik baztertzea".

Bestetik, osasun maila hobea lortzeko herrian dauden zerbitzuak ezagutzera ematea: "Osasun arloan herrian dauden zerbitzu guztiak ezagutzera garrantzitsua da. Herriko pertsona edota taldeen beharretan laguntzen duten edo haiek asetzen dituzten talde eta eragileen zerbitzuak zenbat eta herritar gehiagorengana iritsi, parte-hartze eta emaitza hobea izango dira".

Eta hirugarrenik, herriko bidegorriak egokitzea: "Pasiera egitea oso garrantzitsua da pertsonen osasunerako, eta Bergaran badira hainbat bidegorri horretarako. Gizon zein emakume ugari ibiltzen dira pasieran bidegorri hauetatik, baina askok komun baten beharra izaten dute. Komunik ezean, gizonezkoek oso erraz izaten dute beharra egitea, baina ez horrela

emakumeek. Horregatik, denen eskura komuna izatea pasierako lekuetan funtsezkoa da ibiltzen eta ariketa fisikoa egiten jarraitzeko".

Dinamikarekin pozik

Elena Lete alkatea pozik agertu da Tokiko Osasun Sarearen bueltan sortutako dinamikarekin:



Txirrindularia bidegorrian, Labegarietan. GOIENA


"Helburu zehatzik gabe hasi bazen ere, bileretan agertutako beharrei erantzuteko gai dela erakutsi du. Eragile eta erakun-

deen arteko parte-hartzearekin eta elkarlanarekin, Bergara osasuntsuago eta zoriotsuago bat egiten ari gara".

DEBAGOIENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



ENERITZ AGIRIANOREN IBILBIDEA



Eneritz Agiriano eskoriatzarrak berriro ikasten hasia erabaki du, lanean urte asko egin eta gero, lana topatzen lagunduko diolakoan. Gaur egun, Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa goi-mailako zikloa ikasten ari da.

Goi-mailako zikloa ikasten hasteko, zer egin behar izan duzu? Sarbide-proba prestatu behar izan nuen Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroan (EPA), aspaldiko batxilergotik nentorrelako, eta hori gaindituta sartu ahal izan naiz.

Nolakoa izan da ikasketetara buelta?

Hasieran, gogorra; ahalegin handia egin dut. Ez nengoen ikastera ohituta; gainera, arlo teknologikoa (CNC...). Internet eta ordenagailuak ere ez nituen menperatzen... eta ordu asko eman dizkiot: goizez

gelan, eta arratsaldean liburuetan lanak egiten.

Jada urte eta erdi eman duzu ikasgelan. Eta orain praktikak egitera joango zara enpresara. Ze balorazio egiten duzu?

Oso pozik nago hartutako erabakiarekin. Gauza positibo asko eramaten ditut: talde-lan asko egin dugu, ikaskideak eta irakasleak laguntzeko prest daude beti... Tailerlean ordu asko eman nuen Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroan (EPA), aspaldiko batxilergotik nentorrelako, eta hori gaindituta sartu ahal izan naiz.

Gomendatuko al zenioke Lanbide Heziketa ezaguneri bati? Zergatik? Industria mundu honetara emakume gehiago animatuko nitzuke, gutxi gaude eta! 25 urte izanez gero, ikasten jarraituko nuke, zalantza barik!



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaren, Arrasaten

goiazdebagoiena



Ez direlako bateraezin Internet eta adina

Sareari eta ordenagailuak ematen dituen beste aukera batzuei buruzko ikastaroak ari dira egiten asteotan San Xosepe erretiratuen elkarteetan. Eskoletan ari direnek aukera ugari ikusten dizkiete baliabideei, eta haietan trebatzeko ahaleginean ari dira fin

Julen Iriondo BERGARA

Pentsa, gaur egungo *pen drive*-en aitzindari izandako disketeak merkatura agertu zirenerako, aurreko mendeko 70eko hamarkada hasieraren bueltan, 20 urte inguruko gazte ziren Arantxa Beraza, Pilar Altuna eta Jose Luis Lizarralde. Ordura arte, halakorik batera ez; are gehiago, haiek mundura etortzea eta ordenagailua asmatzea –eta, noski, ez gaur egungo moduko erabilera eta erabiltzaile aniztasunarekin; horretarako, urte batzuk gehiago pasako ziren–, garaitu berean. Eta orduetik hona zenbat aldaketa eta aurrerapen arlo horietan! Ulertzekoa belaunaldi berrienei gutziz naturalak eta berezkoak iruditzen zaizkienak, gutxi asko, sorginkeria iruditzea lehenagokoei.

Baina, hala ere, joera berriotan bazterrean geratzerik nahi ez eta haiek aprobetxatu guran dihardute, adibidez, San Xosepe elkarteetan. Argazkiak ukitzeari,

testu dokumentuak sortu eta diseinatzeari eta Interneti buruzko ikastaroak dituzte asteotan, eta horietan ari dira hainbat eta hainbat erretiratu.

Interesgarri, onuragarri

Ane Untzurrunzagak dihardu irakasle Interneti buruzko ikastaroan. Oinarrizko jakin beharrekoei irakasten dizkie, erretiratuentzat erabilgarri izan daitezkeen adibideekin: esaterako, Tolosako Inauterietara joateko, eguraldiaren eta autobus zerbitzuaren berri non jaso dezaketen jakiteko Interneteko bilatzailea erabiltzen, webgune horietara iristen eta, behin iritsita, haietan moldatzen ari zitezakien azaltzen irakaslea aurreko asteleheneko saioan: "Beti etortzen dira gogoz, eta saiatu egiten dira", zioen Untzurrunzagak.

Arantxa Berazak dio berarentzat oso gauza berriak direla, harreman "oso gutxi" izan due-

la orain arte teknologikoa. "Gure ume garaia arkatzena eta arbelarena izan zen; guk ez genuen ordenagailurik, gure gazte denboran idazteko makina, beste la...". Pilar Altunak. Baina animoso, hala ere: "Teknologia berri hauek ez ditugu dominatuko agian, baina posible baldin bada horien bitartez gure bizi-



Erretiratuak Interneti buruzko eskola hartzen, San Xoseperen egoitzan. JULEN IRIONDO

modua errazago egitea, aprobetxatu egin behar ditugu". Jose Luis Lizarralderen ustez, gainera, gauza asko "erraztuta" dau-

de, "guk erabiltzeko moduan", dio: "Zerbait gaizki eginez gero, botoi bati eman eta atzera joaten da. Hori lehen ezin zen egin".



ARANTXA BERAZA
IKASLEA

"Ez dakit gero erabiliko dugun, baina interesgarriak iruditzen zaizkit ikastaro hauek. Gauzak buruan sartzeko oso adi egon behar duzu, baina ondo".



JOSE LUIS LIZARRALDE
IKASLEA

"Seme-alabak ikusita animatu naiz. Gauzak erraz egiten dituzte, eta nik ere bai haien ondoan. Egin beharrekoak barneratzea da kontua".



PILAR ALTUNA
IKASLEA

"Oso garrantzitsua da Interneten ibiltzen jakitea. Gaur egun, egunkaria erosi nahi ez baduzu, Interneten irakur dezakezu; edo bidaiatzeko...".

Aratusteak 2017 Bergaran

ONDO PASAU!

AZPEITXI • ETXAGI • IRISH PUB GALWAYS BULE • EUXEBIO II • TOKI ONA BODEGOIA

USOA • ARIZNOA • POL POL



Dantzariak entseatzten, eguaztenean. ENEKO AZURMENDI

Mozorroak, pailazoak, musika eta umore ona

Frontoiko kontzertuarekin gaur abiatu eta Aratuste-zapatu eta martitzena hainbat ekitaldiarekin datoz. 'Bergara-Cai, Non stop' ikuskizunerako sarrerarik ez dago; bai, ordea, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Tipi-tapa, korrika!' ikusi ahal izateko

Julen Iriondo BERGARA

Publiko kopuruari dagokionez, arrakasta ziurtatuta du gaurko ikuskizunak –ordu gutxitan saldu ziren sarrerak–. Udal Musika Bandako eta Orkestra Sinfonikoko musikariek, antzezleek, Aritzeta abesbatzakoek eta Debako Kulunka dantza taldekoek artean, 180 lagun inguruk hartuko dute parte saioan: "Aurten komedia egin nahi izan dugu; *road-movie* bat asmatu dugu, errepideko istorio bat. Cadizetik dei bat jasoko dugu, gure ikuskizuna han ikustea nahi dute-la-eta, eta harako bidaiako –autobusez– abenturak kontatuko ditugu", dio gidioia egin duen Manu Diazek.

Biharko mozorro bazkarirako, berriz, 82 lagunek eman dute izena. Bertako produktuekin egindako menua dastatu bitartean, Kolpez Blai *perku-show* taldeko kideek girotuko dute Aranzadi ikastolako gimnasioa, 13:00etan hasita herriko kaleak bezala.

Kontuan hartu beharreko hurrengoak izango dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldiak. Bi saioetarako dau-de oraindik sarrerak –6 eurotan–; beraz, *Tipi-tapa, korrika!* ikuskizunerako leihatila 15:15ean irekiko dute frontoian. Eta saioetarako bezala egubakoitzeko kontzerturako oharra eman du Udalak, eserlekuetan eseri beharko dela publikoa, debekatuta dagoela zutik egotea eta eskaileretan esertzea.

Ekitaldiorain gain, askotariko kalejirak eta musika izango dira, bai bihar eta baita martitzenean ere. Kalejirei dagokionez, erraldoi, kiliki eta buruhandien konpart sarena, batukada eta Musika Eskolako gazteen bandarena; lehenengo biak San Martin plazan hasita –eta amaítuta, buruhandien kasuan–, eta Musika Eskolan hasita eta amaítuta, hirugarrena. Zapatuko erromeria eta martitzeneko Gauargiren DJ festa ere San Martin plazan izango dira.

Egitaraua

Otsailak 24, barikua
• **22:30** Aratusteetako kontzertua, frontoian.

Otsailak 25, zapatua
• **13:00** Animazioa, Kolpez Blai taldearekin.
• **14:30** Mozorro bazkaria.
• **16:15 eta 18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots, frontoian: *Tipi-tapa, korrika!*
• **18:30** Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira.
• **20:30-23:00** Erromeria, plazan: eMePebo5t.

Otsailak 28, martitzena
• **16:30** Musika Eskolako gazteen banda, kalejira.
• **18:30** Batukada, San Martin plazatik iritenda.
• **19:30** Gauargi taldea, San Martin plazan.

Mugarrietara mendi irteera egingo du Pol-Polek

Pol-Pol gazteen taldeak mendi irteera prestatu du martxoaren 5erako, domeka. Mendizale gazteak ez dira urrun joango, Osintxu eta Ubera arteko mendi zeharkaldia egingo dute-eta, mugarrietatik.

Antolatzaileen arabera, mendi irteerak sei ordu iraungo du, eta hitzordua 08:30erako egin dute, Pesako autobus geltokian, hain zuzen ere. Mendi zeharkaldia egitearekin batera, Uberatik Bergarainoko zatia ere oinez egingo dute, eta aurrekusten dute arratsaldeko laurak aldera iritsiko direla Bergara. Izena emateko azken eguna martxoaren 2a da, egue-na.

Martitzenean Soraluze lau t'erdiko finalerdiak jokoan

Datorren martitzenean, hilaren 28an, jokatu ditzute Soraluze lau t'erdiko txapelketako finalerdiak (19:00). Promesen mailan Aranguren eta Larena izango dira aurrez aurre eta nagusietan, berriz, Eneko Labaka eta Peru Labaka izango dira zein baino zein gehiago.

Bestalde, domekan hiru partiduko jokatu ditzute Munizipalean, 11:15ean hasita. Alebin mailan, Bergarako eta Goierriko pilotariak izango dira aurrez aurre; senior mailan, Intxurrekoak izango dira bititariak; eta gazte mailan, Murruga-Gartzia bikote bergararrak Lemoako pilotariak izango ditu aurrean.

Beteranoetan bigarren

Joan den asteburuan egin zuten, Castellon, Espainiako Maratoi Txapelketa, eta beterekoen mailan –60 urtetik gorakoen kategorian– Aitor Eraña bergararra bigarren sailkatu zen.

Erañak oso marka ona egin zuten podiumeko bigarren koskara igotzeko, Arrasate Atletiko taldeko ordezkariak 3.26.24an egin zituen-eta 42 kilometroak korrika.



A.ATLETICO



IMANOL SORIANO

Hockeya lagunartean

Lagunarteko bost partiduko jokatu zituzten Hanka Labankako taldeek Ribabellosakoena kontra. Eta emaitzak denetariakoak izan ziren. Alebnek eta infantilek irabazi egin zuten; benjaminak, kadeteak eta seniorrek, berriz, galdu. Azken horien arteko partidua oso lehiatua izan zen.

Herritarrendako herri erosoagoa bilatu guran

Bidegorriaz, plan orokorraz eta mugikortasunaz berba egin dute Antzuolako udal ordezkariak Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuarekin. Bi aldeek adierazi dute batzar emankorra izan dela eta urrats positiboak egin direla

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eskatuta, Gipuzkoako Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatua Marisol Garmendia Antzuolan izan zen. Udal ordezkariarekin batzartu zen eta hainbat gai irtenbidea eta erantzuna ematea posible izan zen. Horien artean, urtebetean ez aurrera eta ez atzera dagoen gaiari heldu zioten: goiko trenbideko pasealekuaren egoerari. Izan ere, goiko trenbideko Iraetako tunelean harri handi bat erorita dago, eta ordutik hona Deskargarako norabidean itxita dago pasealekua. Herritar askok aisiaildirako erabiltzen duen ibilbidea izanik, bertako arazoa lehenbailehen konpondu nahi du Udalak.

Bergarainoko bidegorria

Aspaldiko nahia da Antzuolako herriak daukana: Bergaraino helduko den bidegorria izatea. Eta batzarrean gai hori ere izan zuten hizpide. "Autobideko lanean batera egingo da Bergarainoko bidegorri zatia. Horrekin batera, ur zikinak erandituko dira eta Jauregiaren tuneletan neurriak hartu dituzte eta itxita egon dira", argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak. Aldundiaren aldetik erantzun ona jaso dutela azpimarratu dute.

ALDUNDIAK, AUTOBIDEKO LANEKIN, BERGARARAINOKO BIDEGORRI ZATIA EGITEA ZIURTATU DU

Bada, gai horrekiko konpromisoa hartu du Gipuzkoako Aldundiak eta azaro ingururako berritri pasealekua ireki ahal izango dutela aurreikusten dute. Horretarako, iaz otsailean Iraetako tunelean erori zen harri handia erretiratu dute eta tunela berrindartu dute, segurtasuna bermatzeko. "Bi hilabete iraungo duten lanak egin dugu eta azaroan zabalduko dugu berritri bidegorria, segurtasun osoz herritarrek erabili ahal izateko. Alkatearekin akordioa iritsi gara eta pozik gaude", azaldu du Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatua Marisol Garmendiak.

mango duen kolektorea ere Bergaraino lotuneraino eraman go da. Autobideko lanean mar txoan hasiko dira eta bi edo hiru urteko epean egitea espero dugu. Horrekin batera ziurtatu digute bidegorria", dio alkateak.

Plan Orokorra

Antzuolako Plan Orokorraz ere jardun zuten. Diputazioa prest azaldu da hura gaurkotzen laguntzeko. "Udalari gure laguntza eskaini diogu Plan Orokorra berritri errebisatzen laguntzeko. Gauzak erraztu, arindu eta ahalbidetzea da gure asmoa".

Mugikortasuna eta autobusak

Antzuolako Udalak Aldundiak beste eskaera bat egin zuen: Bergaraino noranzkoan doazen autobusek gaur egun Bergaraino bertan egin behar duten buelta tuzteko izatea. "Kasualitatez, Bergaraino alkatearekin hitz eginda daukagu, eta, gertokian egin beharreko lanak aprobe txatuz, horri ere irtenbidea emango diogu. Gure konpromisoa horretan ere azaldu dugula esango nuke", argitu du Garmendiak. Hala, Ibargaraiko geltokiko lanean bukatzean gertatu berri bat jarriko dute eta Bergaraino biribilguteraino joan behar izatea saihestuko da.



Herri sarreratik igarotzen den bidegorri zatia. M.T.

Bidegorria Bergaraino

Autobideko lanean lotuta dago Bergaraino lotuneraino bidegorria egitearen antzuolaren nahia eta beharra. Baina autobideko lanean amaitzean egin beharreko lanak dira eta gutxienez bi urte eta erdiko epea beharko dute autobideko lanean.



Iraetako tunela, itxita. M.T.

Tunelak egonkortuko dituzte

50.000 euroko inbertsioa egingo du Gipuzkoako Aldundiak goiko tren estazioko bidegorria berritri erabilgarri egon dadin. Iraetako tunelean eroritako harria kentzeaz gain, Jauregioko tunelarekin batera, egonkortu egingo dituzte tunelak, segurtasuna bermatzeko.



Melissa Piesche, Antzuolako eskolan. M.A.

AEBetatik Antzuolako eskolako metodologia ezagutzera

Hiru astez egon da Texasko Melissa Piesche ikaslea Antzuolako Herri Eskola gertutik ezagutzen

M.A. ANTZUOLA

Hiru astez eskolan egon ostean, gaur du azken eguna Melissa Pieschek. Haur eta Lehen Hezikuntzako ikasleekin izan da eta denek asko ikasi dutela dio: "AEBetako irakasteko metodo-

ingelesez soilik komunikatu daitezke eta. Hasierean lotsati azaldu baziren ere irekitzen joan dira eta beste irakasle bat izango balitz bezala tratatu dute", dio ingeleseko irakasle Laura Pascualek.

"Bere kultura eta hezkuntza ere ezagutu dugu eta asko ikasi dugu elkarrekin. Guk egiten dituzten gertutik diogu. Ipuin bat ekarri digu eta bere pertsona soilik dakien pertsona bat gure artean izatea. Ikasleek berarekin

Gaur irekiko da oihal gorria Torresoroan

Itxura berriarekin dotore dago Torresoroa aretoko agertokia. Eguaztenean jarri zuten oihal gorria eta gaur arratsaldeko pailazoan emanaldiarekin zabalduko da lehenengoz. Argiteria eta agertokiko ekipamendua ere egokitu dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Erosoagoa eta gaur egungo antzerkira egokituta dago orain Antzuolako Torresoroa aretoa. Ekipamendu eszenikoak Hiritzintza teknikari Valen Moñux arduratu da. "Oinarritzko eszenografia bazeukan aretoak, eta, orain dela zortzi urte estreina-tu bazen ere, aurrerantzean posible izango da, besteak beste, oihal gorria itxi eta zabaltzea. Esan dezakegu antzerkia egiteko benetako antzokia daukagu orain egokitu dugun ganbera beltzari esker", azaldu du Moñuxek.

Oihal gorriak agertokian daukan garrantzia azpimarratu gura izan du: "Antzezan batean sorpresa faktorea ezinbestekoa da. Oihala itxita dagoenean, hori posible da. Garrantzitsua da ikusleak ikusten duen lehen irudia sorpresa izatea".

Ganbera beltza edo agertoki atzealdea ere berritu dute; hondo guztia beltza da orain. Horrek alde batetik bestera mugitzeko aukera ematen die ikusleek ikusi gabe aktoreei zein teknikari; baita agertokian bertan ezkutuan egoteko ere.

Proiektore berria ere jarri dute agertokiaren erdian; eta horri esker, aurrerantzean proiektorearen erabilera errazagoa izango da. Izan ere, Torresoroa erabilera askotariko aretoa da eta batzarrak edo aurkezpenak egiten dira maiz. Bitxikeria gisa, esan behar da Japoniatik pieza bat ekarri dutela. Ikusten ez diren arren, agertokiaren goialdean dauden altzairuzko piezak dira eta haien funtzioa da gauzak bertan zintzilikatu ahala izatea; adibidez, fokuak.

Argiteria ere berritu dute eta antzezanari edo emanaldiari egokitzea teknikariendako errazagoa izango da. Modu automatikoan egin ahalko dute; botoi batzuen laguntzarekin.



Oihal gorria modu automatikoan zabaltzen da. MAIDAR ARREGI



Argiteria berriak hobeto argizatzen du agertokia. MAIDAR ARREGI

Goxoa eta gertukoa

Oso gustura daude Torresoroako lanen emaitzarekin. Jone Larrañagak azaldu du beharrezkoak ziren lanak egin direla: "Etortzen ziren aktoreak eta agertokiarako taldeak oso gustura askotariko taldeak erabiltzeko oso areto goxoa eta gertukoa

EGINDAKO LANEI ESKER, EROSOAGO DA ETA ANTZERKIRA HOBETO EGOKITUTA DAGO TORRESORO

dela. Orain, guztiz egokituta geratu da; batez ere, antzerkiko lanen emaitzarekin. Gainera, arlo teknikoa ere orain modu automatikoagoan gidatu dezakegu botoi batzuei esker. Hala, argiteria, oihala edo soina egokitzea errazagoa izango da edonorendako. Baita proiektorea ere. Esan behar da Goizperrek diruz lagundu duela eta posible izan dela horrelako inbertsioa egitea".

Gaur izango dute antzuolarrak antzokiaren itxura berrituz gozatzeko aukera, gaztetxoendako arratsaldean eskainiko den pailazo emanaldiarekin.



Oinarin dantza taldeko kideak Antigua auzoan. IMANOL SORIANO

40 dantzarik alaituko dute Aratuste-domekako festa

Entsegu nagusia bihar goizean egingo dute Oinarin taldekoek txistulariekin batera, Torresoroan

M.A. ANTZUOLA

Aratuste-domekarako dena geratu dute antzuolarrak. 10:00etan irtengo dira dantzariak, bi taldetan, kalejiran. "Herriko Plazan herritar kopuru polita batzea espero dugu. Bi taldetan banatuta irtengo gara eta 40 dantzari inguru izango gara", azaldu du Oinarin taldeko Ion Lizarazuk. Azken entsegu ere egingo dute eta herritarrek animatu gura dituzte Oinari dantza taldekoek: "Bihar, azken entsegu egingo dugu txistulariekin batera. 10:00etan valcarlos eta 11:00etan sorgin dantza. Gonbidapena egingo dugu dantzarako gozatu dute antzuolar guztiei".

12:30ean saio nagusia plazan egingo dute dantzari guztiek elkarrekin. Bertan, Aratusteko dantza ikusteko aukera izango dute herritarrek. Herri bazkaria 14:30ean pilotalekuan egingo da. Eta ondoren, 16:30ean

mozorro jaiaz gozatzeko aukera izango da txaranga saioaren laguntzarekin. Mozorro jaiari nahi duenak har dezake parte eta nahi duena egin dezake: desfilea, koreografia... Talde onenentzako saria egingo da.

Gaur, berriz, eskolako patioan herriko txikiaren txanda izango da. Arratsaldean mozorro festa egingo dute. Txokolate beroa eta torradak dastatuko dituzte bertaratzen direnek.

Odol-emaileen diru batzea

Aurten ere, goizean zehar, Antzuolako odol emaileen elkarte-kideek diru batzea egingo dute -gustuak estaltzeko-.

Erretiratuak martitzenean

Landatxoep antolatuta, martitzenean, hilak 28, mozorro afari-merienda egingo dute 19:00etan hasita. Gaur izena eman daiteke 16:00etatik 18:00etara.

'Zisneen lakua' emanaldira joateko autobusa jarriko dute

Apirilaren 22an eta maiatzaren 29an, Kurtsaalen, Txaiikovskiren *Zisneen lakua* emanaldia eskainiko dute. Antzuolatik autobusa irtengo da bi egunetan -Sagastitik 18:00etan-. Joan gura dutenek sarrera erosi beharko dute eta ondoren udaletxean autobuserako izena eman beharko dute, kultura@antzuola.eus helbidera mezua bidalita.

Patxin eta Potxin pailazoan emanaldiaz gozatzeko aukera

Gaur, egubakoitza, pailazoan emanaldia izango da herriko txikitxoendako Torresoroa areto berrian. Patxin eta Potxin pailazoek bi saio eskainiko dituzte gaur arratsaldean: 17:30ean lehena eta 19:00etan bigarrena. Ikuskizunean ez da umorea faltako eta txikitxoek bermatuta dute barre algara eta sorpresa-aren bat edo beste.



Herri Eskolako neska-mutikoeak eta irakasleek ia Inauterietan egindako mozorro kalejira. MAITE TXINTXURRETA



Zezena, Txintxon eta Lehoia buruhandiak ia Inauterietan. LARRAITZ ZEBERIO

Mozorrotzeko eguna da gaur

Herri Eskolako neska-mutikoen kalejirak emango die hasiera Elgetako Inauteriei. Txokolate-jana, buruhandiak eta disko festa etorriko dira jarraian. Pentsatzekoa da ilunarekin batera agertuko direla herriko mozorro handiagoak

Larraitz Zeberio ELGETA

Bi egun hartzen dituzte Elgetan mozorrotzeko eta horietako bat gaur da. Batzuk agerian eta beste batzuk ezkutuan, hainbat herriar prestaketa lanetan ibili dira egunotan. Iritsi da egindako lanaren emaitza erakusteko unea, eta aurten ere Herri Eskolako neska-mutikoeak izango dira lehenak Inauteriei hasiera ematen. Mozorroren kalejira iragarri dute 15:00etarako. Eguraldiak laguntzen badu, ikastetxetik abiatuko da kalejira eta Domingo Iturbe kalean gora egingo du San Roke kalean behe-raz plaza iristeko. Bertan, dantzak egingo dute umeez. Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dituzte ekintzak.

Umeen dantzen ostean, Maala guraso elkartearen txokolate-jana izango da, baita Udalak ira-

garritako buruhandien etorrera ere. Zezena, Txintxon, Lehoia eta konpainia 16:30etik 17:30era ibiliko dira kalean.

Disko festa antzokian

Spaloian jarraituko du festak gaur, Mariskal Dejai musika jartzailearen saioarekin. Udalak antolatu du eta haurrentako eta gaztetxoendako bi orduko jaia izango da, 17:30ean hasita. Pentsatzekoa da ilunarekin batera joango direla agertzen herriko mozorro handienak.

Herrixa Dantzan berezia

Inauteri-domeka izanda, otsailko dantza saio irekiak lotura izango du Inauteriekin. Patxi Monterok gidatuko du eta parte hartzea librea izango da. Ohi bezala, Spaloia kafe antzokian egingo dute, 19:00etan.

Inauterietako egitaraua

Otsailak 24, barikua

- **15:00** Eskolako umeen mozorro kalejira. Ondoren, dantzak.
- **16:00** Txokolate-jana guraso elkartearen eskutik. Jarraian, buruhandiak.
- **17:30** Spaloian Mariskal Dejai, Udalak antolatuta.

Otsailak 26, domeka

- **19:00** Herrixa Dantzan berezia: Inauteriak.

Otsailak 28, martitzena

- **17:00** Erretiratuen txokolate-jana eta bingo jokoa, Ozkarbi elkartean.

"Euskal Inauterikoak diren hainbat dantza egingo ditugu domekan"

PATXI MONTERO HERRIXA DANTZAN

Otsailko Herrixa Dantzan Inauteri-domekarekin etorri da aurten, eta Inauterietako dantzeekin osatuko du Patxi Monterok errepertorioa. Polita eta desberdina izan daitekeela uste du. **Saio berezia prestatu duzu domekarako.** Bai. Euskal Herriko hainbat lekutan propio Inauterietakoak diren dantzak egingo ditugu domekan. Guztiak ez, baina batzuk egokiak dira gurea bezalako saio baterako, eta hainbat aukeratu ditut dantzan ondo pasatzeko tarte bat izan dezagun. Ez dira dantza zailak izango, momentuan ikasteko modukoak izango dira guztiak. **Nongo dantzak izango dira? Prest duzu errepertorioa?**

Batzuk gertukoak izango dira; adibidez, Eibarko koko dantzak edo kaldereroak, Bergarako eta Antzuolako sorgin dantza, Aretxabaletako txino dantza... Baina urrutiago ere joango gara: Zuberoako bralea oso berezia da, Behe Nafarroan eta Lapurdin ere dantza asko dituzte... Batzuk oso ezagunak izango dira askorendako

—Lantzeko zortzikoa, kasu—, eta beste batzuk, ziurrenik, jende gehienak inoiz ikusi ez dituenak izango dira, baina jatorrizkoak diren herrietan Inauterietan egiten direnak.

Euskal Herriko dantzak ikastearrekin bat, euskal kulturaren gainean ere gehiago ikasteko aukera izango da domekan. Aletxo bat izango delakoan nago; izan ere, Inauteriekin gaur egun bizi duguna inkontzientzia handia dela uste dut. Ezjakintasun zentzua, eta ez dugu esanahia ezagutzen. Esango nuke, gainera, berdina gertatu dela neguko jai gehienekin: Arimen Gaua, Gabonak, Inauteriak... Bizi ditugu kontsumismoan eta zentzugabeko ospakizunetan sartuta, baina badute zentzua, eta Inauteriek ere bai. Bere neurrian, baina zentzu hori berreskuratzera eraman dezaketen ekimen txiki guztiak ongi etorriak direla uste dut nik.



LZ

Herriko pilotuen aldeko bazkarian 75 bat lagun

Mendi Mendia Racing taldeko kideek eskerrak eman dituzte jasotako babesarengatik. Horrekin batera, gogor gaitzetsi dute gauean gertatutakoa. "Izandako giro ederra norbaitek modu horretan izorratu izana salatu nahi dugu", adierazi dute

Larraitz Zeberio ELGETA

Pozik dira Mendi Mendia Racing taldekoak zapatuak emandakoarekin. "Balorazio positiboa egiten dugu antolatutako jaiaren inguruan. 75 lagun inguru elkartu ginen bazkaltzeko, eta giro ederrean pasa genuen Elgetako pilotuei laguntzeko eguna. Eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratutako guztiei, zuen laguntzarik gabe ezinezko izango zen", adierazi dute.

Asier Unzetabarrenetxea, Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua dira auto lasterketetan ibiltzen diren hiru elgetarrak. Zapatuan nork bere autoa ipini zuen ikusgai herriko plazan. Unzetabarrenetxeak BMW e30 325i bat dauka; Beretxinagak, BMW e36 325i bat; eta Sarasuak, berriz, Opel Astra GSI bat. Adin guztietako herritarrak gerturatu ziren hiru ibilgailuak bertatik bertara ikustera; izan ere, horrelako aukera ez da egunero izaten.



Herritarrak, plazan, Elgetako hiru pilotuen autoak ikusten. IMANOL SORIANO

75 bat lagun bazkaltzeko

Hamaiketako eta trikiti doinuarekin girotutako txikiteoa egin ostean, bazkaltzeko elkartu ziren 75 bat lagun kiroldegi-ko gimnasioan; izan ere, baba-jana zuten gertu antolatzaileek.

Kirola ezagutzera ematea eta martxoan abiaraziko duten 2017ko denboraldiko gastuei aurre egiteko laguntza lortzea zuten helburu antolatzaileek. Elgetako hiru pilotuak R4 taldean lehiatuko dira aurten.

Haserre zapatu gaueko gertaerarekin

Mendi Mendia Racing taldekoak haserre agertu dira zapatu gauean izandako gertaera larriarekin eta gogor gaitzetsi dute; izan ere, 22:20 inguruan kafe antzoki pareko semaforoan geldituta zegoen ibilgailu bati plastikozko mahai bat etorri zitzaion gainera. Ez zen zauriturik egon, baina ikara handia eta autoaren txapan kalte materialak eragin zituen ezbeharrak. "Larunbatean izandako giro ederra norbaitek modu horretan izorratu izana salatu nahi dugu", esan dute. Gaineratu dute hurrengo egunean izan zutela gertatutakoaren berri eta gertaerak ez duela inolako zerikusirik egunaren



Bost bat metroko altueratik bota zioten mahaia semaforoan zegoen autoari. LZ

antolakuntzarekin. Elgetako Udalak ere gogor gaitzetsi du gertatutakoa. "Kaltetuei elkartasuna eta behar dutenean laguntzeko gure prestutasuna adierazi nahi dizkiegu. Ez da

inolaz ere onargarria jai giroa gaiztotuz elkarbizitza zapuztu eta inguruak arriskuan jartzea. Gertaera hauek argitzeko gure esku dagoena egingo dugu", adierazi dute.

Binakako frontenis txapelketarako izen-ematea zabalik

"Bikote mistoendako frontenis txapelketa antolatu gura dugu aurten", adierazi du bultzatzaile nagusi Iratxe Bravok. "Ideia da urte batean emakumezkoendako txapelketa egitea eta hurrengoan bikote mistoendako txapelketa". Bravok jakinarazi du zabalik dagoela izen-ematea eta interesatuek martxoaren

1era arte dutela horretarako. Prezioa da hamar euro bikoteko, eta txapelketa amateur mailako jokalarientzako da. "Izena ematen duen bikote kopuruaren arabera erabakiko dugu txapelketa antolatzea merezi duen edo ez, eta horren arabera zehaztuko dugu egutegia", esan du Bravok.

Interesatuek Elgetako Bolotoki tabernan eman behar dute izena. Ekimenak Elgetako Udaren laguntza jasoko du.



NEREA VILLA

Galdera asko tatuatzailearentzat

Goiena komunitatea / Gaztelekua / ELGETA

"Giro oso ona izan genuen zapatuan. 26 pertsona egon ginen eta galdera ugari erantzun behar izan zituen Xabier Elgezabal tatuatzaileak: tatuajeak nola egiten diren, min egiten duten, zenbat urterekin egin daitezkeen... Tatuatzeko pistola ere ekarri zuen eta hainbat tatuaje egin zituen".

OHARRAK

Finalista Eguna martxoaren 12an

Zabalik da mendi ibilaldirako zein bazkarirako izen-ematea udaletxean. Argibide gehiagorako: zirkuitua.com.

Azken barikua, elkarretaratzea

Euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratze isila gaur, 20:00etan, herriko plazan.

Plastiko bilketa, hilaren 28an

Landa ingurunekeo plastiko bilketa zerbitzua Debagoieneko Landa Garapen Elkartearen eskutik. Interesatuek aurrez deitu behar dute: 943 76 25 47.

Sorpresak egongo dira biharko Inauteri festan

250 lagunek hartuko dute parte, baina eurekin batera dantzan egiteko gonbidapena dute herritar guztiek. Aurreko urteetako piezez gain, berria estreinatuko dute aurten. Harkaitz Allurrek sortu du, eta Oñatzen laguntzarekin dantza jarri diote

Oihana Elortza OÑATI

"Berritasunak egongo dira. Sorpresak. Gainera, entseguetan parte hartu duten askok ere ez dakite horien berri. Isilean mantendu gura izan dugu. Bihar ikusiko ditugu denok", aurreratu du Arkaitz Bengoak, Inauteriak antolatzen ibili den taldeko kideak. Misterio horrekin aterako dira 250 herritar Olakua auzotik bihar, zapatua, Inauteri festako arropa jantzita. 25 baino gehiago musikariak izango dira, beste 30 pertsonaia eta gainerakoak herritarrek, dantzariak.

Goizeko ekitaldia aurreko urteetakoa baino luzetxoagoa izango da eta arratsaldekoa inoiz baino beranduago hasiko dute: 17:45ean irtengo dira Zubikoa kiroldegitik, eta, Bidebarrietan, Kalegoienean eta Kale Barrian egon ostean, 20:00etan egingo dute eguneko azken ekitaldia Foruen plazan.

Kilometroak 2017k antolatuta, bestalde, astoaren pisua asmatzeko lehiaketa egingo dute bihar goizean Foruen plazan, 10:30ean. 11:30ean, berriz, txorizo-pintxoak eskainiko dituzte Portu plaza-txoan eta 19:00etan saiheski-pintxoak emango dituzte plazako arkupeetan, poltsa denda zegoen parean.

Martitzenean gehiago

Domekan Oñatz dantza taldeko dantzariak berriz aterako dira kalera Inauteri dantzak egitera. Aita Madina taldeko txistulariek eta Jose de Azpiazu Musika Eskolako akordeoi ikasleek ere hartuko dute parte 18:30ean hasiko den Luzaideko dantzen kalejiran. Martitzenean Aratustee-tako bestelako mozerroak jantzita ibiliko dira ume eta gazte-txo asko. Zubikoan *Katapuntxis-pun* ikuskizuna egongo da 17:00etan, eta kalean, elkartasun txokolata eta txorimaloak 18:00etan; 19:00etan disko festa gaztelekuan.



Joan den urtean ere kalez kale ibili ziren dantzan. IMANOL SORIANO

"Kantu alai da, baina badu nostalgia puntu bat zati batean"

HARKAITZ ALLUR TRIKITILARIA

Bost pieza eta pertsonaien balsa dantzatuko dituzte bihar kalez kale. Piezetako bat berria da, Harkaitz Allurrek sortutako *Ordu txikitán* polka.

Orain artekoetatik ezberdina ei da. Ze berezitasun ditu?

Dantzariak izan ditut, batez ere, kontzientzian, jai giroa. Eta, aldi berean, desfile batean antzezleean eta ikusleen artean bizitzen diren momentu horietako sentazioek inspiratu naute doinu berri hau emateko. Kantua alai da, jostagarria, baina, aldi berean, badu nostalgia une bat zati batean.

Nolakoa da? Polka baten forma hartu du. Izan ere, trikitilariontzat ez da ohikoena genero musikal hau, baina horretan egin dugu ahalegina. **Gustatu zaizu egokitu dioten dantza?**



O.E.

Lan bikaina egin dute, eta oso denbora tarte laburra izan dute horretarako. Musikarekin oso ondo konbinatzen duen dantza jolasgarria sortu die. Kantuak hasten den momentutik amaitzen denera arte bide bat egiten du, eta berdina lortu dute Oñatz dantza taldekoek euren pausoekin. Aipamen berezia Iñigo Ugarteri ere, haren laguntza ezinbestekoa izan da taldea osatzen duten gainontzeko instrumentuentzat konponketak egiteko.

18.000 euro 2017an kirol ekintzak egiten laguntzeko

Aloñako Igoera eta Kantoikrit antolatzen dutenekin hiru urterako hitzarmena adostu dute

O.E. OÑATI

Oñatiko Udalak 18.000 euro emango ditu 2017an kirol ekintzak egiten laguntzeko. Horietatik 5.000 euro Aloñako Igoera eta Kantoikrit probak antolatzeko izango dira. Hiru urterako lankidetz hitzarmena sinatuko dute Udalak eta proba horien antolatzaileek. Hala, hiru urtean 2.500 euroko diru laguntza izango du talde horietako bakoitzak. Bi hitzarmen horiez gain, Aloña Mendirekin eta Atxintxiketaneekin ere badu Udalak lankidetz akordioa.

Herriko kirol elkarteek kirola sustatzeko edo kirol arloan ezohiko jarduerak antolatzeko diru laguntzak dira horiek. Udaletxean egin behar dute eskaera, eta, onartuz gero, laguntzaren %60 ebazpena eman eta handik hamabost egunera jasoko dute; gainerakoa, urteko memoria onartu eta gero.

Eguaztenean Udaleko Kirol teknikariak herriko kirol elkarteekin batera egin zuen bileran eman zien diru laguntzen berri. Herriko kirol ekipamenduen eta instalazioen diagnosirako ekarpenak egiteko aukera zutela ere gogorazi zien teknikariak kirol eragileei.

Auzolana eta aisialdia 'Lekaixoka!' uztartuko dituzte martxoan

Auzolana eta *aisialdia* kontzeptuak indartzeko ekimenak antolatu ditu Kilometroak 2017k martxorako. Martxoaren lean, eguaztenean, adibidez, bi kontzeptu horiek gaur egun parekatu daitezkeen edo ez azaltzen saiatuko dira Mikel Bian Oñatiko alkatea eta Udalbiltzako ordezkariak. Udaletzeko osoko bilkuren aretoan izango da

EGUBAKOITZA 2017-02-24 GOIENA ALDIZKARIA



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Normaltasuna

Laster itzuliko da dena bere onera. Eguneroko katamaloa erantsi eta benetan garen modukoak ageriko omen gara Inauterietan.

Super-heroia mundua salbatu nahian ibiliko da, baina bere burua ere zaindu ezinik. Grazia gutxiko pailazo ugari besteen kontura barrez. Neskaz mozerrotu den ingeniaria, mahai gainean, lankideekin dantzan eta edukiera jadanik beteta duen tabernako jende-oldean bi olagarro.

Donald Trumpen ileordea jantzi duena kebaba jaten eta Hannibal Lecter begira, bera ere gosetutu. Spiderman libiarra atzeko harresia gauditut nahian.

Guardia zibila biraoka, mehatxuka, harro, inor bera jotzera ausartuko ez den ziurtasunaz. Dracula txapelokerraren lepora eskaera, eta, onartuz gero, laguntzaren %60 ebazpena eman eta handik hamabost egunera jasoko dute; gainerakoa, urteko memoria onartu eta gero.

Zonbiak egurrezko bankuan eserita, logale. Euli erraldoia ere aho zabalka. Boxeolaria kale kantoian pipak jaten, ninja mozkortuta eta behia txateatzen.

Laster estreinatuko da film surrealistaren aurtengo atala. Denok ere garen modukoak agertuko garenez, filmaren bukaeran onartu egin beharko dugu ez gaudela batera ondo. Edo bai?

bilera, 18:30ean, eta instituzioei zer dagokien eta herriari zer eztabaidatuko dute erakunde horietako eragileek.

Martxoaren 10ean, Berdintxiketaren herri lasterketan ibiliko dira *Lekaixoka!* eta 13tik 26ra, Kilometroak jaiaren 40 urteko ibilbidea jasotzen duen erakusketa egongo da zabalik kultura etxean. Mendizaletasunari buruz ere jardungo dute, baita *Haurren hiria* proiektuari buruz ere. Oihana Vega ere izango da.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-02-24 EGUBAKOITZA

"Gure erronka baloi bako joko hobetzea izan da"

AITOR ORUETA ALAVES B TALDEAREN ENTRENATZAILEA

Lehen Mailako Alavesen filiala da Aitor Orueta oñatiarrak zuzentzen duen taldea. Hirugarren Mailako liderra da eta liga bukatzeko hamabi partidu geratzen dira

Mireia Bikuña OÑATI

Laugarren urtea du Alavesen. Kadete mailan hasi eta egun Hirugarren Mailako taldearen ardura dauka. Aitor Oruetak zuzentzen duen taldea liderra da eta liga bukatzeko hamabi partidu falta dira.

Santurtziren kontrako berdinketaren ostean, asko estutu da sailkapena. Lehia talde gasteiztarren artean dago?

Ez. Sei talderen arteko lehia egongo da bukaera arte: Vitoria, Bermeo, Portugalete, Durango, Beasain eta gu geu. Sei talde, baina igoera faserako lau leku besterik ez.

Baina komeni da lehenengo lekuan geratzea.

Bai. Lehenengo bukatuz gero, kanporaketa bakarra jokatu beharko genuke Bigarren B Mailara igo ahal izateko. Dena den, gure helburu nagusia ez da igoera lortzea. Jokalariak formatu gura ditugu, etorkizunean profesional mailarako saltoa emateko aukera izan dezaten. Alavesen edo beste talderen baten.

Egitura profesionala duen klub baten dauden jokalaria ez profesionalen egiten duzu lan. Gustura?

Taldearekin eta jokalariekin bai. Batez beste, 20 urteko jokalariek izaten ditut. Gehienek urte asko daramate futboleko eta askotariko ohiturak dituzte. Baina, era berean, gabeziak ere badituzte. Gure lana da horiek zuzentzea edo hobetzea. Eta, noski, dituzten ezaugarri onak indartzea.

20 urteko jokalariai, erdi-profesionalak eta Alaves bogan egonda, hori guztiori kudeatzea zaila da?

Aurten ditudan jokalariekin, ez. Eurek badakite profesional mailara salto egiteko pauso bakarra geratzen zaiela. Azken pausoa. Entrenamenduetan lan ona egiten dute, eta futbol zelaitik kanpo daudenean ere zaindu egiten dira. Oso aberasgarria da egiten dugun lana.



Aitor Orueta, Ibaia futbol zelaian. MIREIA BIKUÑA

"AIPUA BEHERAINO BETE AIPUA BEHERAINO BETE AIPUA BEHERAINO BETE AIPUA"

Ze ezaugarri ditu zure taldeak?

Talentu handiko jokalariai dira. Teknika oso ona dute. Azkarrak dira. Baina baloirik gabe gaudenean sufritu egiten dugu. Denboraldi-aurrean oso garbi esan nien jasotako gol kopuruaren araberako sailkapena izango genuela. Hori horrela, denboraldi osoan dihardugu baloi gabeko antolaketa eta posizionamendua lantzen. Zelaian nola kokatu sakontzen. Baloi gabe nola jokatu lantzen.

Eta lanketa horrek emaitzak eman dituela dirudi. Taldea liderra da.

25 partidutan hamar gol jaso ditugu eta esango nuke iraila ezkererako lantzen dugunak emaitzak eman dituela. Landu ditugun antolaketa ideiak ondo barneratu eta praktikan ipini ditugu. **Azken pausoa ematea falta zaien jokalaria horietatik zenbatek lortuko dute profesional izatea?**

zitzaien eta Alavesera joateko eskaintza egin zidan.

Eta ez zenuen bitan pentsatu.

Aloñan urte asko neramatzan eta baneukan beste klub eta pertsona batzuk ezagutzeko go-goa. Eta aukera hori klub profesional batek eman zidan. Ezin nuen ezetzirik esan.

Eta zein da orain arteko balorazioa?

Arlo pertsonalean lagunak egin ditut eta futbol arloan asko ikasi dut. Nire inguruan futbolariekin gozatzen duen jendea dago eta asko ikasten dut haiekin.

Kadeteak, gazteak eta Hirugarren Maila. Hiru horiek ezagutu dituzu. Nolako lana egiten duzue harrobietan Alavesen?

Antolaketa eta egitura ona dago. Gainera, entrenatzaileen artean harreman ona eta estua daukagu. Lantaldeak ilusioa eta motibazioa baditu, eguneroko lanean antzeman egiten dira.

Bestalde, harrobiko taldeen lana azpimarragarria da. Emaitzak agerikoak dira. Kadete eta gazte mailetako taldeak oso indartsuak dira eta hori lan onaren emaitza da.

Baina Lehenengo Mailako Alavesen harrobiko jokalaria gutxi dago.

Harrobiko Sergio Llamasek eta Inear Galileak hasi zuten denboraldia lehen taldearekin. Entrenatzaile naizen aldetik pena handia ematen dit harrobiko jokalaria gutxi egotea, baina, era berean, erabaki horiek ez dagozkirit niri. Pellegrinok aukerantzian ditu goiko jokalariai.

Lana eta lana da gure esku dagoena. Erabakiak beste batzuek hartzen dituzte.

Talde filiala izanda, zer-nolako hartu-emana daukazu goikoan talde teknikoarekin?

Denboraldi-aurrean harreman estua izan nuen Pellegrinorekin. Jokalaria gutxi zituen talde nagusiak eta bigarren taldeko hamalau jokalarik eurekin egin zuten lan. Eguneroko elkartzin ginen entrenamenduan eta berba asko egiteko aukera izan genuen. Haren ostean, nork bere bidea hartu zuen.

Alavesen bai, baina Aloña ahaztu barik.

Noski. Partidu gutxi ikusi ditut aurten, eta badakit egoera ez dela gozoa, baina ez daukat zalantzarik entrenatzailearen eta jokalarien konpromisoarekin eta lana egiten, aurrera egingo dutela. Halako antzerako egoerak bizi izan ditugu aurretik, eta beti egin dugu aurrera.



Hiru emakume, iazko proban. E ZILARMENDI

Oñatiko Duetloirako izen-ematea zabalik martxoaren 6ra arte

Martxoaren 12an jokatu den duetloirako izenak *Triatloi.org* webgunean eman behar dira Oñatiko proban parte hartzeko.

Aurtengo berrikuntza nagusia eguna da. Lehendabiziko aldir domekan jokatu da lasterketa. Bestelakoan, ez dago aldaketarik. Parte-hartzaileek hamar kilometroko korrika, 36 bizikletan eta bost korrika egin beharko dituzte.

Martxoaren 4an eta 5ean egingo dute eski zeharkaldia

Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, martxoaren lehen asteburuan egingo dute aurtengo eski zeharkaldia. Aurreko urtean moduan, Pirinioetan izango da, Candanchu eta Astun inguruetan. Prezioa da 75 euro eta izena eman behar da elkarreko bulegoan edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean.

Azken sailkatuaren etxean jokatu du Natra Oñatik

Jokatutako azken hiru partiduak galduta, bolada txarra bukatzeko aukera ezin hobea dauka Natra Oñatik Paduraren kontra. Izan ere, bizkaitarrak azken sailkatuak dira eta orain arte jokatutako partidu guztiak –hamasei– galdu dituzte. Natraren egoera hobea da, baina puntuak binaka lortu behar dituzte lasai ibiltzeko.



Ander Etxaniz, erakusketaren inaugurazio egunean, atzean lanak dituela. MITXI

"Erakusketa bat egiteko aukera izatea aparta da"

Ander Etxaniz artista oñatiarrak pintura erakusketa dauka zabalik Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon duten aretoan, Luz Estefania "lagun eta margolariarekin" batera; martxoaren 3ra bitartean egongo da ikusgai lan abstraktuz osatutako erakusketa

Eneko Azurmendi OÑATI

Pasa den azaroan lanak Getxoarren erakusteko aukera izan zuten Etxanizek, eta horrek oraingo honetarako atek ireki zizkiola azaldu du. "Haren bitartez lortu nuen Batzar Nagusietan erakusketa egiteko aukera hau. Luz Estefania artista eta lagunarekin elkarlanean egin dut", dio.

"Gaur egungo arte giroa zein den ikusita", onartu du horrelako aukerei ezin zaiela muzinik egin. "Aparta da erakusketa bat egiteko aukera izatea. Eskaintzen dituzten baldintzak oso onak dira, gainera", zehaztu du hark.

Ikusgai dauden margolanei dagokienez, olio pinturak dira, oihal zein paperaren gainean. Bi artisten lanak abstraktuak dira. Hala ere, Etxanizek ez du hitz hori gustuko. "Abstrakzio hitza erabiltzea ez dut gustuko, figurazioaren eta abstrakzioaren artean diferentzia handirik ez dagoenez, baina, tira, ulertu dadin", azaldu du, eta gaineratu,

bien pinturak ez direla errealtate fisikoaren errepresentazio zuzen bat. "Pintura beraren prozesuak eramaten gaitu harat-horat, eta pinturan murgildurik gaude, berau medio bezala ulertuta", azpimarratu du.

Erakusketa egitea proposatu zietenean, pentsatu zuten ondo ezkontzen zirela bi artisten pinturak eta egokia izango litzatekeela bien lanak batzea. Horren harira, Joseba Eskubi eta Luis Candaudap artistek testu eder bana idatzi zuten erakusketaren katalogorako. "Luz eta biok era antzekoan gerturatzen gara pinturara, nahiz eta nor bere egiteko era eta prozesua duen, eta horrek emaitzan ere eragiten du, bistan denez", dio Etxanizek.

ERAKUSGAI DAUDEN MARGOLANAK OILIO PINTURAK DIRA, OIHAL ZEIN PAPERAREN GAINEAN

Bi artistek Euskal Herriko Unibertsitateko Pintura Departamentuaren diru laguntza izan dute, materialen gastuari aurre egiteko.

Balorazioa, positiboa

Etxanizen esanetan, inaugurazio egunean bertaratu zirenen gutukoia izan zen erakusketa. "Dena den, ez zen arte kritikaririk etorri, lagunak eta familiakoak izan ziren gehienik, eta badakizu, besterik zer esango dute, ba...", adierazi du. "Badut pintore lagun zintzoak izatearen zorrea", jarraitu du. "Haiek egin zidaten ikusi zutenaren kritika, beraien ikuspuntutik".

Kritikak, orokorrean, dispozizioaren gainekoak edo lanen hautaketaren gainekoak izaten dira erakusketan, oñatiarraren arabera. "Beti dago zer hobetu eta ona da distantzia bat duen norbaiten ikuspuntua izatea, zaila izaten da eta norberaren erabakiak egokiak diren jakitea", bukatu du.

Herstura, Willis Drummond eta Skakeitan bihar gaztelekuan

Herstura talde oñatiarrak disko berria aurkeztuko du, 'Metamorfobia', eta 10 eurotan egongo da salgai

E.A. OÑATI

Bihar, zapatua, musika mota ezberdinak batuko dituen kontzertua izango da Oñatiko gaztelekuan, 22:00etan. Izan ere, Herstura, Willis Drummond eta Skakeitan taldeek joko dute.

Batetik, Herstura talde oñatiarrak hirugarren lana *Metamorfobia* aurkezteko baliatuko du biharko kontzertua.

Gainera, salgai egongo da disko berria, gaztelekuan bertan, 10 eurotan. Horrez gain, Oñatiko Arrano, Aker eta Ona tabernetan ere egongo da salgai, baita haien *bandcamp* orrian ere. "Deskargatu ahal izateko, hiru euro ordaindu beharko da, gutxienez, eta doan entzun ahal izango da", adierazi du Jagoba Martinek, Herstura taldeko kideak.

Bigarrenik, Willis Drummond Baionan sortutako rock talde

ezaguna izango da. 2016ko azaroan aurkeztu zuten azken lana, *Tabula Rasa*, hamaika abestiz osaturikoa. Hain zuzen ere, disko berria aurkezten ari diren biraren parte izango da bihar Oñatin eskainiko dutena.

Azkenik, Skakeitan talde doostiarra ere azken lana aurkezten ari da herriz herri: Durangoko Azokara begira argitaratutako *Galera* izeneko diskoa, hain zuzen.

Lan horretan izen handiko kolaborazioak izan dituzte doostiarrek: Manu Chao eta Fermín Muguruzarenak; adibidez.

Sarrerak, 8 eurotan

Gaur ilunkera bitartean erosi daitezke sarrerak Boga, Ona eta Xagu tabernetan, zortzi eurotan. Ez badira gastatzen, bihar gaztelekuan ere egongo da aukera.

'Okilak eta biodibertsitatea'

Oñatiko Natur Eskolak martxan jarritako Ingurumen Jardunaldien baitan, *Okilak eta biodibertsitatea* izeneko erakusketa zabaldu zuten pasa den egubakoitzean, kultura etxean.

Mundu osoan 238 okil espezie daude, dibertsitate handia dago, eta, Imanol Biais Natur Eskolako kidearen esanetan, aniztasun hori erakustea da erakusketaren helburu nagusia.



E.A.

'Kaput' antzezlana izango da gaur Santa Ana antzokian

Gaur, egubakoitza, *Kaput* antzezlana eskainiko du Ganso & Cia taldeak, 20:00etan, Santa Ana antzokian.

Publiko orokorrari zuzendutako antzezlana da, umorea ardatz duena. "Gure helburua ikusleei barrea eragitea da. Gai dramatikoek aritzeko ere umorea eta barrea sekulako bidea dira", dio Gorka Ganso zuzendariak.

Urko Arregi eskolarteko finalerako sailkatu da

Urko Arregi bertsolari oñatiarrak Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako finalerako txartela lortu zuen. Legazpiko Murraxpi elkartean jokatu zen lehen kanporaketan puntu gehien eskuratu zituen Arregik eta apirilaren 2an Azpeitian izango da, finalean. Bittor Zubiaagirrek, lan txukuna egin arren, ez zuen aurrera egin.



Otsailaren 24tik 26ra
IREKIERA-ESKAINITZA BEREZIA

1 ORDUKO SARRERA DOAN!!

Lekuaren edukiera bete arte (100 haur)

Kafetegia, adin ezberdinetarako jolas-eremuak, urtebetetze-eremua, etab.

INAUTERIAK GORBEIAN
MOZORROTU
ETA BIDALI ZURE ARGAZKIA

SARIEN ZOZKETAN PARTE HARTUKO DUZU

250€ LEHEN SARIA
150€ BIGARREN SARIA
100€ HIRUGARREN SARIA

PARTE HARTU AHAL IZATEKO

① Atera argazki bat, mozorrotuta, Gorbela Merkataritza Gunean
② Bidali argazkia eta izena eman gure webgunean

*Erosketa-baleetan. Kontsultatu oinarriak centrocomercialgorbeia.com webgunean. Argazkiak 2017ko otsailaren 23tik martxoaren 1era bitarte jasoko dira.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Gatza eta piperra

Nahikoa da. Ez eskatu berrero gatza bizilagunari. Autobus geltokian ikusi nuen atzo esaldi hori. Kristalaren atzean jarritako kartel handi batean. Letra erraldoiekin. Eta letra txikiagoz, azpian: *Eros ezazu online dendan*, eta, aldamenean, supermerkatu kate baten izena.

Jesus, bizilagunari urdaiazpiko iberikoa eskatuz gero bale... baina gatza? Edo azukre pixka bat... ez da asko eskatzea, ala? Eta gainera, gaur egun ez da oso ohikoa bizilagunari ezer eskatzea. Sasoi batean bai: etxeetako atek irekita egoten zirenean. Orduan bai. Sartu, atera. Berriketan jardun. Eman, eskatu. Trukatu.

Interneten denetik eros daiteke orain. Supermerkatuan aurki dezakezun guztia. Eta gauzarik bitxi eta harrigarrienak ere bai. Tren bagoiak, tankeak. Herriak, uharteak. Santuen zein hiltzaileen erlikiak. OVNIak eta mamuak detektatzeko makinak. Eta izarrak ere bai! Izar bati zure izena jarri nahi baldin badiozu, Interneten duzu aukera.

Denetik eros daiteke. Baina ez dena. Zenbat aldiz eskatu diozu gatza bizilagunari? Nik sekula ez. Nahikoa da! Gatza eskatuko diot bizilagunari. Beharrik ez izan arren. Bizitzako gatza eta piperra ez daude *online*.

BUKATZEKO

Lau arrautza errun ditu zozoak, etxeko balkoian

Oñatiko San Lorentzo auzoko behe-barru bateko balkoiko loreontzian lau arrautza errun ditu zozo eme batek, asteon. Dena ondo bidean, hemezortzi bat egunetan jaioko dira zozokumeak, eta, behin jaio ondoren, hiru bat astez egongo dira habian

Miren Arregi OÑATI

Ez ei da ohikoena, baina ezta hain arraroa ere, etxeetako balkoietan txoriek kumaldia egitea. Urtero horrelakoren baten berri izan ohi da, eta, oraingoan, Oñatiko San Lorentzo auzoko behe-barru baten gertatu da. Kasu honetan, zozoa da bertan habia egin eta arrautzak errun dituen. "Joan den astean etorri zen lehengoz zozoa etxera. Haizete gogorren ondoren izan zen, eta bi egunetan osatu zuen habia", dio behe-barruko bizilagun Ines Eizagirrek. Gero, joan den egue-nean-edo ipini zuen lehenengo arrautza. "Lau ipini ditu, guztira. Nik esango nuke egunean bat ipini duela. Oso politak dira, urdin-urdinak", gaineratu du. Zozoa eta arrautzak bake-bakean uzten saiatzen dira bizilagunak, ez baita "molestatzerik komeni".

Bakean uztea, gakoa

Horrela baieztatu du Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek: "Errespetatuz gero, eta, batez ere, zozoa arrautzak berotzen ari denean bakean utziz gero, kumaldia aurrera aterako du". Dena ondo bidean, hamazortzi egun beharko dituzte kumeek jaiotzeko, eta gero, hiru bat aste



Zozoak errundako arrautzak, San Lorentzo auzoko balkoi baten. ARANTZA MILIKUA

eman beharko dituzte habian: "Guztira, hilabete eta astebete irauten du arrautzak errun eta kumeak jaio arteko zikloak. Jaio ondorengo fase hori ez da hain delikatu, baina, orduan ere, bakean utzi eta errespetatzea komeni da", jakinarazi du Biainek. Behin zozo-kumeak jaio ondoren, zozo arrak eta emeak jana eroango diete kumeei; zi-



Zozoa. GOIENA

zareak, xomorroak, eta abar. Bai arrautzak berotzen, baita ondoren jana eroaten ere, zozo arra eta emea, biak ibiliko dira.

Azken urteetan, sarri

Hasieran aipatu bezala, geroz eta gehiago dira etxeetan kumaldia egiten duten txoriak. "Zozoak eta birigarroak, esaterako, ari dira balkoietan arrautzak erruten". Horren arrazoia da geroz eta gehiago direla herri-gunean bizi diren txoriak, eta, haiendako, loreontziak gordeleku, babesleku, direla.

Kumaldiak aurreratu

Horretan guztian zerbait arrarorik egotekotan, hori da, arrautzak erruteko garaia; izan ere, oraindik oso goiz da: "Neguan gaude, eta ez da normala txoriek garai honetan kumaldia egitea". Azken urteetako joera da hori; alegia, arrautzak geroz eta lehenago ipintzearena. "Txoriek udaberrian egiten dute kumaldia, eta dagoeneko arrautzak habian egoteak adierazten du euren dako udaberria iritsi dela". Eguzki orduaren iraupena edo bertasuna hartzen dute kontuan hegaztiekin, eta, baldintzak onak badira, hasiko dira arrautzak ipintzen: "Zein den arriskua? Bada, orain, elurte bat baletor, gertatu liteke kumaldia galtzea, jateko zer eman ez dutela gelditu daitezkeelako", dio Imanol Biainek. Kasu horretan, kumaldi gehiago egingo lituzke zozoak: "Goiz hasten direnek, batzuetan, bi eta hiru kumaldi egin ditzakete urtean". Arraroa litzateke, baina badaude lau egiten dituztenak ere: "Laugarrena erreko-rra litzateke, baina baliteke gertatzea", adierazi du.

ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

Bidali Aratusteetan ateratzen dituzun argazkiak eta irabazi goi mailako saskibaloia bertatik bertara ikusteko sarrerak! Jasotako argazkiak Goienan argitaratuko ditugu.

ARGAZKIAK BIDALTZEKO:**WHATSAPP:** 688 69 00 07 **TELEGRAM:** 688 69 00 07**POSTA ELEKTRONIKOA:** berriak@goiena.eus**EPEA:** Otsailaren 24tik 28ra.**SARIA:** Bi sarrera Baskonia- EA7 Emporio Armani Milan partidurako.

Martxoaren 2an, 21:00etan, Gasteizko Buesa Arenan.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

